ASTEKO GAIA: LASTERTASUN HANDIKO TRENA BAILARAN /2-3


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko ekainaren 8a • II. urtea • 25. zenbakia • DOAN BANATZEKOA





Goienka2a
Al Andalus kultura elkarte: Flamenkotik harantzago

HERRIZ HERRI
Gorlako kantina zaharra bota eta berria asteburu honetan irekiko dute /4

AINTZANE LASA
*"Hitzarmena sinatu duten guztiek borondatez sinatu dute. Hori da bere ekarpenik handiena"* /9


# Bergarako Udalak gaitzetsi egin du jaietako erasoa

Bergarako Udalak "gaitzespenik gogorrena" adierazi zuen ostegun arratsaldean egindako osoko bilkura berezian, "aurreko asteburuan Bergaran eman diren gertakari larrien aurrean". EAJ/EA, PSE-EE eta PP alderdiek gaitzespeneko mozioaren alde bozkatu zuten. EH, berriz, abstenitu egin zen.

Mozioak esaten du "Bergarako herriak, euskal gizarte osoak bezala, argi adierazi duela elkarbizitzan oinarritutako eta biolentziarik gabeko etorkizuna nahi duela". Erasotzaileek, aldiz, "herri honen hitzarekiko duten mesprezua besterik" ez dutela adierazten du eta kontuak eskatzen dizkie horrelako "ekintza basatiak" antolatzeko gazteak erabiltzen dituztenei. Amaitzeko, "erantzun argia" eskatzen dio EHri.

EHko kideek kaltetuei elkartasuna eta egoera gatazkatsua konpontzeko lanean jarraitzeko konpromisoa agertu zuten. PPk, berriz, Barne Sailaren erantzukizuna nabarmendu nahi izan zuen.

◆ **MOZIOA**
**Onartu egin zen EAJ/EA, PSE-EE eta PPren botoekin. EH abstenitu egin zen**

◆ **20 SALAKETA**
**15 beribil, 3 banketxe, postetxea eta optika bat, kaltetuak**

◆ **IKUSMINA**
**Kazetari, kamerari eta argazkilari asko bildu zen osoko bilkura aretoan**



Komunikabideetako ordezkariek hartu zuten lekurik gehien aretoan.

ENEKO AZKARATE

ANGIOZAR

## Gipuzkoako Eskola Txikien Jaia, domekan Angiozarren

Datorren domekan, Gipuzkoatik etorritako 900 haurrek Gipuzkoako Eskola Txikien Jaia ospatuko dute Angiozarren. Goizeko 10:00etan hasita, egitarau trinkoa izango dute parte hartzaileek. Ekintza gehienak umeendako eratu dira, eurak izango dira-eta festako errege-erreginak.

Gipuzkoan 27 eskola txiki daude, 900 haur aterpetzen dituztenak. Debagoienean, ostera, bi baino ez daude: Elgetakoa (70 haur) eta Angiozarkoa (8 haur). Leintz Gatzagan eta Osintxun ere ikasgela bana dituzte, baina horiek Eskoriatzako eta Bergarako eskolen menpe daude.

Orain hamalau urte, Gipuzkoako Eskola Txikien Konfederazioa sortu zen, arazoz beterik zeuden eskola txikiak pizteko. Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik, horixe izango da domekako aldarrikapen nagusia.

OÑATI

## Kolokan dago Zubillagako hiltegiaren geroa

Zubillagako hiltegiaren gaia ez aurrera ez atzera dago. Joan den astean Debagoieneko Mankomunitateak bilera egin zuen, hiltegiaren kudeaketa lehiaketara atera edo ez erabakitzeko. Baiezkoaren aldekoak nagusitu ziren, baina boto batengatik erabateko gehiengorik lortu ez zutenez, lehen bezala geratu ziren.

Inbertsio handiak egin behar dira hiltegian, baina bailarako udalek ez dute beren gain hartu zama hori. Datorren uztailaren 18an bilera egingo du Debagoieneko Mankomunitateak, hiltegiarekin zer egin erabakitzeko.









HERRIZ HERRI/4-5 • IRITZIA/6-7 • SAILKATUAK/8 • KIROLA/10 • KULTURA/16-17 • NON ZER/18-19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21 • TELEBISTA/23

# Lastertasun *handiegiko* trena

## Abiadura Handiko trenaren ibilbidea gure bailaran bete-betean sartuko da

IKER BARANDIARAN

Dagoeneko 1990. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoa zeharkatuko lukeen Abiadura Handiko Trena edota Y deritzona egiteko asmoa, Europan garraiobide horrekin lotutako proiektuetan ageri zen. Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuko agintariek, lurralde bereko trenbide sareetan hobekuntza nabariak egin behar zirelakoan, ontzat hartu zuten proiektua eta finantziazio iturriak aztertzen hasi ziren. Are gehiago, epe jakinak ere jarri zituzten; behin betiko proiektua egiteko urtebete, eta beste zazpi obra guztia gauzatu ahal izateko. Hainbat arrazoiren ondorioz, ordea, asmoa izoztuta gelditu zen, 1998an Jabier Maturana sailburuak egitasmoa berpiztu zuen arte.

Izatez, EAEri dagokion Y aren proiektu erraldoi honek, batez beste, bost mila milioi pezetako aurrekontua izango luke (Nafarroari dagokion H itxurako trazatua kontuan hartu gabe) eta obra guztia finantziatu ahal izateko tirabira dezente egon da.

Pasa den urtean, ordea, ingurumenaren gaineko azterketa egin eta emaitzak egokiak zirelakoan, planaren behin betiko onespena egin zuten. "AHT gelditu elkarlana" taldeak, ordea, hainbat alegazio aurkezteari ekin dio, eta duela gutxi trazatuaren aldaketa txiki bat egin dute Jaurlaritzakoek.

Bailaran eragin handia izango du AHTk, eta puntu kaltetuenak nabarmentzearren Udalaitz eta Arlaban zulatuko dituzten tunel ugariak, Eskoriatzako Mazmela, Zarimutz eta Marineko elizateetan AHTren ibilbidea autopistarekin paralelo joatea aipatuko genituzke; Bergarako Angiozar auzoan egingo duen kaltea ahaztu gabe, baina eremu ia osoan izango du eragina, kontuan eduki behar baita tren honek orduko 230 kilometroko abiadura hartuko duela, ahalik eta zuzenen joan behar duela eta ibilbide guztian ehun metrotik gorako zabalera beharko duela.




EAEko mapa honek adierazten duenez, bete-betean harrapatuko du Debagoiena Lastertasun Handiko Trenak.

## AHTren aurkako plataforma zabala

**Abiadura Handiko Trena egiteko asmoa bezain zaharra da proiektu honek izan duen oposizioa. AVEk ere Estatuan aurkari ugari izan zituen, lotzen dituen hiriei nolabaiteko onura eginez gainontzeko herri guztiak kaltetu egiten baititu eredu bat inposatuz.**

**Ezin daitezke konparatu Estatuko lautadak eta Euskal Herriak daukan orografia nahaspilatsua, eta ondorioz, arazoa larriki areagotu egiten da. AHTk autopista eta Beasain-Durango ardatzekin batera, ingurune asko eta asko suntsituko lituzke. 1994. urtean, AHTren aurkako asanblea jaio zen. Berehala, bailaran, Arrasaten, lagun batzuk lanean hasi eta 1997an halako talde bat eratu zuten, bailarako beste lagun batzurekin batez ere honen inguruko informazioa zabaltzen gogor lan egin duena. Poliki-poliki, gizarte esparru handiago bat AHTren aurka kontzientziatzen hasi zen, tartean, udaletxeak –bailarakoak Eskoriatza eta Antzuola–, politikariak, ekologistak, kultura taldeak, sindikatuak eta beste batzuk, eta 2000 urteko abenduan "AHT gelditu elkarlana" sortu zuten, AHTren aurkako asanbleak eta EHNEk bultzatutako elkarlanaren bateratze gisa. Honen barruan, hiru batzorde nagusi daude; juridiko-instituzionala, mobilizazioena eta argumentazioena. Lehenak, errekurtsoak jarri dizkio proiektuaren onespenari. Bigarrenak, ekainaren 16ean Donostian egingo den manifestazio erraldoia prestatzen dihardu, eta argumentazioakoak, euren arrazoiak jakitera ematen dihardu gizartean.**



Angiozarrek ez dute entzun ere nahi Lastertasun Handiko Trenaren txistua.

## MILA ELORTZA/Angiozarreko auzo alkatea

# "Proiektu honek ez dio inolako onurarik ekarriko bailarari"

Angiozarren izugarrizko eragina izango du Abiadura Handiko Trena ezartzeak eta auzotarrak oso haserre daude proiektu honekin aspalditik.

**Zein eragin izango luke AHTk Angiozarren?**

Eragina ikaragarria izango da. Paradoxikoa da, orain arte ingurua zaintzearren fabrikak jartzea galeraztea, eta bat-batean tren munstro



hau ezarri nahi izatea. Baserri giroko paraje eder hau suntsitu behar dute. Komeni zaienean legeak azkar aldatzen dituzte. Auzoan bertan bi tunel erraldoi jarriko dituzte, eta honen zaratа itzela izango da. Ibaia desbideratu beharko dute, baserri batzuk desagertuko dira eta eskonbrera erraldoiak ere jarriko dizkigute.

**Izan ere, trazatuaren aurka zaudete edota osotasunean proiektua gaizki ikusten duzue baita?**

Argi dago eragin izugarria egingo digula eta horrek kezkatzen gaituela, baina osotasunean proiektuaren aurka gaude. Ez dio gure bailarari ezta Euskal Herriari onurarik egingo. Ordea, gure inguruan zerbaiten beharra badago, baina ez AHTa. Bergarara joan ahal izateko autobusa astean hiru egunez besterik ez daukagu, eta konponbiderik bilatu beharrean, bailara suntsituko digun tren erraldoia jarri nahi digute, ezertxo ere konponduko ez diguna.

## MIREIA UNAMUNO/Antzuolako alkatea

# "Tren hau ez da inola ere gure beharretara egokitzen"

Antzuola, Abiadura Handiko Trenaren ondorioz gure bailaran aski kaltetua izango den beste herri bat da. Izan ere, bertan zenbait tunel eta biadukto jarri nahi dituzte eta udala horren aurka agertu da.

**Zein eragin izango luke AHTren jazarpenak zuen udalerrian?**

Ekologikoki desastre bat izango da. Antzuolako lurretako bi zatitan



biadukto erraldoi batzuk altuera handitik igaroko dira, eta tunelak ere aurrez ikusita daude. Adibidez, Goizper enpresa gainetik, Abiadura Handiko Trena eta Beasain-Durango ardatza igaroko dira aurrez ikusitakoaren arabera. Biaduktoen ondorioz, inpakto bisuala itzela izango da, eta tunelen ondorioz, berriz, trenak bertara sartu ahala, udalerria mugitzeko adina zarata eragingo dute herritar guztien kalterako.

**Dena den, AHTk nolabaiteko onurarik ekarriko duela uste duzue?**

Ez. Gure arazoak ez ditu inola ere konponduko. Guk garraio alternatibo bat behar dugu, adibidez gure beharrei egokitutako trena jartzea, iraganean zegoenaren antzekoa. AHTa Europarako makroinfraestruktura da, Gasteizetik Parisera joan nahi duenarentzat aproposa izango dena, baina gure kasuan txantxa dirudiena, Bergarara joateko ia aukerarik ez baitaukagu.

## JOSE MARI ETXAGIBEL/Garagartzako auzo alkatea

# "Beste infraestruktura batzuen beharra daukagu bailaran"

Arrasateko Garagartza auzoan kokatuta dauden Lezetxiki eta Kobaundi kobazuloak AHTaren eraginez desagertu zitezkeela entzun zenean, jende asko arduratu zen.

**Zeintzuk dira Garagartza auzoan AHTak gehien kaltetuko lituzkeen inguruak?**

Gure ardura nagusia, Lezetxiki eta Kobaundi kobazuloak ez galtzea da. Hasiera bateko proiektuaren arabera, arriskutan zeuden, orain berriz, egin berri diren aldaketekin ez dakigu nola geratuko diren. Izan ere, oso zaila egiten zait imaginatzea bi koba hauen eta Kobateko harrobiaren inguru horretan tren hori nondik igaro ahal izango den.

**Zein da proiektu horrengan daukazuen iritzia?**

Egia esan, gure auzo batzarrean ez dugu gaia askorik landu Fagorreko aparkalekuen kontuarekin buru-belarri gabiltzalako. Baina nire iritzia une honetan aurkakoa da. Honek eragin ditzakeen kalteak besterik ez ditut ikusten, eta onurarik oraindik ez dut ezagutu. Hiri batzuetako pertsonek erabilera emango dioten garraio bat, guk ikusi eta bere kaltea sufritu besterik egingo ez duguna. Baina, gugandik gertu geltoki edo estazioren bat jarriko balute, berau egiteko aitzakiaren bat izan zezaketen, auskalo, baina horrela ez.

Bestalde, argi dago gure bailaran infraestrukturak oso gaizki daudela eta enpresak, aldiz, gero eta gehiago daudela. Zerbait egin beharra dago, baina diru guztia Abiadura Handiko Trena egiten xahutzen badute, ezingo da benetan behar dugun infraestrukturarik jarri ahal izango.

## Bailaran, labur

### GREBA
**Garbiketa saileko beharginak lanera itzuli dira**

Berrogeita hiru egun greban egon ondoren, garbiketa sektoreko langileak lanera itzuli dira. Patronalak eta sindikatuek arbitrajea onartu eta gero, PRECOk bi alderen arteko lan hitzarmena ezarri du. Bost urteren buruan, 35 orduko lan astera iritsiko dira, urtero-urtero, lan orduak murriztuz. Grebaren amaierak berehalako ondorioak izan ditu Debagoienean: kiroldegiak, ikastetxeak, zaharren egoitzak eta hainbat enpresa bere onera itzuli dira, garbitasun kontuei dagokienez. /JOXE ARANZABAL

### MCC
**Mondragon Ensamble eta Copreci, handitzen**

Mondragon Ensamble enpresak Kataluniako Dimaq Torelló (18 langile eta 440 milioi pta.ko fakturazioa iaz) enpresaren kapitalaren %50 erosi du. Mondragon Ensamblek muntatze automatiko eta robotikako sistemen diseinua egiten du eta erosketa honekin, "hurbilagotik erantzun nahi die Katalunian dituzten bezeroei". Gaur egun lau produkzio gune ditu: Aretxabaletan, Katalunian eta Frantzian beste bi. Alemanian eta Mexikon ere egin izan nahi du.

Aretxabaletako Copreci ere enpresa bat erostekotan da, Italian, baina oraindik ere bi enpresarekin ari da negoziatzen. Enpresako arduradunek adierazi dutenez, bi aste barru jakingo da Italiako enpresa horren izena. Gaur egun Coprecik hiru fabrika ditu: Aretxabaletan, Txekiar Errepublikan eta Mexikon. /J.A.

### EUSKARAZ BIZI
**Debagoienean ere turismoa euskaraz egin ahal izango da**

EAEn dagoen landa turismoaren azpiegitura aprobetxatuz, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Kultura sailek Euskaraz Bizi izeneko egitasmoa antolatu dute, turismoa euskaraz egin nahi dutenek horretarako aukera izan dezaten. Euskaldunen kopurua handia den eskualdeetan egingo da, tartean Debagoienean. Gure bailara honetan, hala ere, bi baserri baino ez dira sartzen egitasmoan: Ibarre baserria Antzuolan eta Arregi baserria Oñatin. Antolatzaileek hainbat pakete prestatu dituzte, turismoa egiteko. Oñati, Arantzazu eta Leintz Gatzaga, besteak beste, hor izango dira. /J.A.



### ZEZENA
**Bergarako zezen bat, Debagoieneko gizenena: 1.000 kilo kanalean**

Joan den asteartean ikuskizun handia zegoen Zubillagako hiltegian. Monasteriobide baserriko zezen honek tona bat pisatu zuen kanalean, inoizko potoloena bailaran. /J.A.

BERGARA | KANTINA ZAHARRA BOTA ETA BERRIA IREKI

# Gorlako kantina zaharra ekainaren 22an botako dute

*Kantina berria esleituta dago, eta asteburuan irekiko dute, seguruenik*

MONIKA BELASTEGI

**Dagoeneko erabakita dago. Gorlako kantina zaharra ekainaren 22an botako dute. Bestalde, Belatz, kantina berria emanda dago, bi aldiz lehiaketara atera eta hutsik geratu ostean. Bergarako bi gaztek ustiatuko dute, eta seguruenik asteburturako irekita egongo da.**

Gorlako aisiagunean laster zabalduko dute Belatz kantina. Joan den urteko iraila hasieratik itxita egon da. Izan ere, orduko arduradunari kontratua amaitu eta udalak kantinaren kudeaketa bi aldiz lehiaketa publikora atera duen arren, hutsik geratu da.

Hala eta guztiz ere, dagoeneko lortu du udalak kantina esleitzea, eta Bergarako bi gazte arduratuko dira ustiaketaz. Gainera, asteburturako, irekita egongo da, seguruenik.

Ohi bezala, kantinaren ardura hartu duten bi bergararrek ez dute errentarik ordaindu beharko, baina kantina eta inguruak zaintzea euren ardura izango da.



Bergarako bi gaztek ustiatuko dute Belatz, kantina berria. MONIKA BELASTEGI

Eta horrez gain, kantina irekita izateko egutegia eta jendaurreko zerbitzurako ordutegia ere izango dute. Esleipena, printzipioz hiru urterako da, beti ere luzatzeko aukerarekin.

**ZAHARRA BEHERA**

Kantina berria irekitzearekin batera, kantina zaharra bota egingo dute, ekainaren 22an hain justu ere. Halaxe esan zuen, bederen, Victoriano Gallastegi alkateak maiatzaren 28an egindako osoko bilkuran. Bestalde, bota eta berehala, kokatuta dagoen tokia txukundu egingo dute berdegune gisa erabili ahal izateko.

Victoriano Gallastegik osoko bilkuran gaineratu zuenez, LKS enpresa arduratu da kantina zaharra tasatzeaz. Hori horrela, ia milioi eta erdi pezeta ordaindu beharko die udalak kantina zaharreko jabeei kantina botatzeagatik, indemnizazio gisa.

OÑATI | ALDAKETAK HERRIKO PLAZAN

# Plazako "txanpinoiak" kendu egingo dituzte azkenean

*Argiteria berria jarriko dute plazan*

AINTZANE IRIZAR

Horrenbeste zeresan eta ika-mika sortu dituzten plazako "txanpinoiak" hil honetan bertan kenduko dituzte. Herriko plaza goitik behera eraberritu zutenean jarri zuten argiteria sistema bitxi hau, eta hasiera-hasieratik era guztietako iritziak sortu zituen. Gainera, asko izan dira "txanpinoi" horietan estropezu egin eta erori direnak ere. Gauzak horrela, eta plazan dagoen argi eskasa dela-eta, hainbat aldaketa egitea erabaki du Hirigintza Batzordeak. Alde batetik, argi puntu planoak jarriko dituzte oraingoen tokian. Bestetik, kioskoaren alboan, plazan dagoena bezalako argi-poste bat ezarriko dute. Eta azkenik, magnolien tarteetan farolak jarriko dituzte.

**GOIZEZ ERE ZABALIK DAGO LIBURUTEGIA**

Oraingo astelehenean bertan hasi da liburutegia ordutegi berriarekin. Goizeko 10:00etatik 13:00etara egongo da zabalik, eta arratsaldean 16:30etik 20:30era. Haur liburutegiari dagokionez ere aldaketak egon dira; hala, 16:30etik 19:30era egongo da zabalik.



Argi puntu planoak jarriko dituzte oraingoen tokian. AINTZANE IRIZAR

ANTZUOLA | ELKARTASUN BIDAIA

# Arbulu anaiak Zaireko herri bat urez hornitzera joan dira

AINTZANE IRIZAR

Eguazten goizean abiatu ziren Zairera Bittor eta Andres Arbulu. Euren zeregina hango herri bat, Kansenia, urez hornitzea izango da. Horretarako, hilabete egingo dute han. Antzuolako parrokoa izandako Don Tomas, Zairen misiolari egondakoa da. Bittorrek eta Andresek harreman handia zuten Tomasekin, eta berarekin joan zen Andres Zairera duela bi urte. Bisita hartan, beste misiolari euskaldun bat ezagutu zuen, Alfonso Sainz, hain justu. Andresen esanetan, "Alfonsok 35 urte dihardu Zairen lanean, eta berak azaldu zizkidan urarekin dituzten arazoak". Kanseniatik gora, hiru bat kilometrora, presa bat egin zuten kanseniarrek. Orain, handik herrira ura ekartzeko sistema jarri nahi zutela-eta, lan horrexetan lagun egitera joan dira Arbulu anaiak.

Erdiko kale, 32
ARRASATE
Tel.: 943 79 16 12
Gizonak
Emakumeak
LUKO
JANTZIAK
Ibai-arteren bazkide

ELGETA | AURREKONTUAK ONARTUTA

# Gobernuan batera egonagatik, EHk ezezkoa eman die aurrekontuei

*Ia bi orduko osoko bilkuran eztabaida dezente aurrekontuen gainean*

IBAN ARANTZABAL

Aurtengo aurrekontuetan nabarmenena inbertsioen atalak izan duen murrizketa. Iaz 86 milioiren bueltan egin zen inbertsioa eta aurten ez da helduko 28 milioira. Zergetatik eta udal tasetatik iaz baino 6 milioi gehiago jasoko dira eta hori kontuan hartuz 166 milioiko aurrekontua izango da.

Ez zen adostasunik egon, hala ere, aurrekontuak onartzerako orduan. EHk ezetza eman zion aurrekontuari. EHkoen esanetan, aurrekontuak ez dira izan parte hartzaileak, ez da inolako hartu-emanik egon taldeekin eta bereziki azpimarratu dute EAJ/EA alderdia ez dela batu eurekin aurrekontuak aztertzeko. Batzordeetako iritziak ez direla oso kontuan hartu ere azaldu zuten osoko bilkuran EHkoek. Udalbiltzarentzat ez dela udal guztiei eskatutako %1 eman ere aipatu zuten.

EAJkoak osoko bilkuran azal-

| GASTUAK / 166.997.110 pezeta | |
|---|---|
| Pertsonala | 57.403.377 |
| Zerbitzuak | 39.225.099 |
| Interesak | 5.908.651 |
| Trasferentziak eta laguntzak | 26.615.651 |
| Inbertsioak | 27.725.006 |
| Elgeta 21 SL | 2.000.000 |
| Maileguen amortizazioa | 8.119.326 |

| SARRERAK / 166.997.100 pezeta | |
|---|---|
| Zergak | 29.567.501 |
| Eraikuntza eta obra zergak | 18.200.00 |
| Tasak | 22.922.727 |
| Laguntzak | 73.792.075 |
| Patrimonioa | 2.994.455 |
| Bestelako laguntzak | 8.020.352 |
| Mailegua | 11.500.000 |

du zutenez, parte hartzea zabala izan da, batzorde informatiboak zabalak baitira eta herritarrek parte hartzeko aukera izan baitute. Bestalde, aktan jasoko den moduan, aurrekontuen borradorea eman eta alegazioendako epea emanda, EHk ez du epe horretan alegaziorik egin. Kultura batzordeko aurrekontua jasotzea eskatzen zuten EHkoek eta EAJ/EA alderdiak gaineratu du beste batzordeetan ere murrizketak egon direla. Udalbiltzaren kontua dela eta ez dela proposamenik heldu adierazi zuten EAJ/EAko ordezkariek.

Bestelako gaiak ere eztabaidatu zituzten, esaterako, Goienari eman beharreko dirulaguntza. EHk erantzun globala eskatu zuen, izan ere, aurrekontuetan 200.000 pezeta sartu ditu udalak eta ekarpena handiagoa izan beharko litzateke. Patxi Basauri alkateak abuzturako arre edo iso egin beharko dela erantzun zuen eta bere ustez arre izango dela gaineratu.

Eztabaida, baita ere, baserrietara doazen bideak erabiltzearren kamioiei zergak kobratzeko. EAJ/EAk esan zuenez, gai hori ez da Gobernu batzordetik pasatu.

## Zabalik



JUAN LUIS AZKARATE

# Ukondoka igerilekuan

**Umetan, Mondragoen zegoen igerileku pribatu bakarrenetako batean bainatzeko pribilegioa izan nuen. Urte dezente iraun zuen sasoi ahaztezin hark, flotagailu edo mangitoekin hasi eta Garibai etorbideko txalet eder hura bota zuten arte, 1982an. Garai haietan, erdialdeko ume guztiak igerilekuan bainatzeko desiratzen egoten ziren. Baina, denontzako lekurik ez zegoenez, batzuetan, txaleteko nire lagunak edonola erabaki behar zuen zein bainatzen zen eta zein ez (ni finkoa nintzen). 12 edo14 urterekin denok gara diktadore hutsak eta, gainera, zer demontre, horretarako daude igerileku pribatuak.**

**Umeetako pasadizo hau burura etorri zait Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek duela gutxi izan duten portaera ikusi eta gero. Kontua da maiatzaren 1ean eskualdeko kirol txartela jarri zela indarrean bi hilabeterako, froga gisa. Sistema horren bidez, kirol txartel bateratua ezarri nahi da, Debagoieneko edozein hiritarrek erabil dezala bailarako edozein kirol instalazio, bereiztu gabe zein herritakoa den. Ideiak, txalogarria bada ere, gutxi iraun du, zoritxarrez. Kontua da Aretxabaletak, bere igerilekua arrasatearrez betetzen zela ikusirik -Musakolako igerilekua itxita egon delako garbitzaileen greba luzearen erruz-, bertan behera utzi duela akordioa. Lehenago, gainera, Eskoriatzak uko egin zion akordioan parte hartzeari. Igerileku berri-berria dutenez, hura ere arrasatearrez beteko zen beldurredo. Gero, horiek guztiak Musakolako kanpoko igerilekura joango dira udan, debalde gainera (Aretxabaletakoak, behintzat, doan bainatzen dira Arrasaten uda partean).**

**Bailara berba aipatzen dugu, eta ahoa betetzen zaigu denoi. Baina, gero, bakoitza berera. Debagoiena, laugarren hiriburua?**

## Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com

Faxa

# Lanbide Heziketa, zergatik ez euskaraz?

Aurreko astean, Nafarroako irrati batek hainbat udaletxetako alkateak omendu zituen. Zer dela eta? Euskararen aldeko jarrera eduki dutelako. Tristea da benetan, Euskal Herrian, Euskararen Herrian, sari bat jasotzea norberaren hizkuntzarekiko jarrera ona izateagatik. Eraso egiten duten horiek zigortu beharko lituzkete, sariak banatu beharrean.

Badirudi gainera, ez ditugula eraso horiek gure azalean sentitzen. Nafarroan, Iparraldean edo Araban jasan dituzten erasoez konturatzen gara, baina zer gertatzen da eraso horiek gure inguruan gertatzen direnean? Bada, beste aldera begiratu eta listo.

Beste batzuetan egin izan dugun bezala, oraingoan ere Lanbide Heziketak jasaten duen ezkutuko erasoa salatzea da gure asmoa. Euskaraz ez eskaintzea ez al da erasoa? Zenbat dira erdara hutsean beraien ikasketak egin beharko dituzten ikasleak? Hauen nahia ez litzateke euskaraz ikasten jarraitzea ala? Orduan, zergatik ez ditugu behingoz gure ikastetxeetan lanbide heziketako arlo ezberdinak euskaraz eskaintzen? Ikastolek gaur egun ez daukate eskaintza hau euskaraz emateko prestakuntzarik? Borondaterik ba al dago? Lan mundua euskaratzeko ezinbesteko urratsa litzateke.

Bada mugi gaitezen eta datorren ikasturtetik aurrera ia eskaintza guztiak euskaraz diren. Baskongadetan, Ofizialtasun teorikotik behingoz praktikora jauzi egiten dugun. Euskaraz ikasteko eskubidea dugulako; Lanbide Heziketa euskaraz!

Ofizialtasunaren alde, ekainaren 23an denok Gasteizera.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
Arrasate

# Ez gaude ados pentsioen aurrehitzarmenaren sinadurarekin

Eta ez gaude ados, uste dugulako aurrehitzarmenak dioenak ez digula argitzen zeintzuk izango diren etorkizunerako proposatuko dituzten ehuneko eta aplikazio epealdiak. Izan ere, noiz etorriko da etorkizuna? Egoera horretan bost, hamar edo hogei urte eman eta gero eta ezarri dizkieten murrizketen ondorioz geratzen zaizkien pentsio urriekin aurre-erretiratuak mundu honetatik desagertzen direnean edo garenean?

Eta bi milioi alargun baino gehiagoren egoeraren gainean, zer?

Horiek ere pairatzen dituzte justuak ez diren zigorrak euren pentsioetan. Askok gutxieneko pentsioa kobratzen dute. Eta, bizitzako urterik onenak lanean eta kotizatzen eman dituzten senarren alargunek pentsio Duin, Zuzen eta Justua kobratu behar dute. Zuzena baita senarrak 40, 30 edo urte gutxiago kotizatu eta gero, bere alarguna bizi ahal izatea erakunde ofizialei, seme-alabei edo senitartekoei laguntza eskatu barik. Euretariko askok edo guztiek etxeko ardurak euren gain izan dituzte, seme-alabak hezi dituzte eta neke handiak pairatu dituzte, eta orain hau? Galdera honakoa da: noiz arte horrela? Pentsioen mahaian esertzen diren Agente Sozialen eta Estatuko Gobernuaren erantzun argiak nahi ditugu lehenbailehen.

Asko gara zain gaudenok eta egoera ikusita, taldeetan elkartu eta presionatu egingo dugu. Bakarrik justua dela uste duguna eskatzen dugu, eta, kokoteraino gaude hitz eta agindu ederrekin. Murrizketa gutxiago eta irtenbideak exijitzen ditugu.

APPALDE, JUBILATUEN ELKARTEA
Arrasate

## Hemeroteka

### Izua Bergaran

Azken hauteskundeen ondoren, Euskal Herriak esperantzarako garaia bizi du, herri honi bakea ekartzeko, indar politiko demokratiko guztien lankidetzak ireki dituen bideekin. Kaputxadunek Bergaran egin zutena biolentziaren alde daudenen burugogorkeria adierazten du, euskaldunen gehiengoak urnetan libreki erabakitakoa errefusatzen dutela, indarkeriaren adierazgarri kalkulatu eta antolatura bideratuz, bakea lortzeko elkarrizketen formulak galarazteko helburuarekin.

DV, 2001/06/04

### Polizia nazionala balego...

Poliziako Nazionaleko (CNP) sindikatuetako idazkari nagusiek, SUP-eko José Manuel Sánchez Fornet-ek eta ANPU-ko Enrique Gómezek, gaur baieztatu dutenez, Ertzaintza beharrean Polizia Nazionalak esku hartu izan balu, domekan kale borroka egin zuten gazteen erdiak atxilotu izango lituzkete.

LA RAZÓN, 2001/06/04

### Bergara ez da Ramala

Oraingoan banku-sukurtsalak, postabulegoak eta optikak txikitu dituzte. Ondasun materialak guztiak, Haika-ko edo inguruko gururen batek azal dezakeen moduan, euskal askapen nazionalaren etsaiak dira. Hori ez da ezer bizitza deuseztearekin konparatuta, talde arraro hauen beste ekintza maltzurretako bat, Palestinako intifadaren mailara iritsi guran. Baina Bergara ez da Ramala. Eta jai-suntsitzaile kaputxadunek ere ez dakate borrokatzen duen herri baten laguntzarik. Errealitatetik urruntze hori, gerra iraunkor egoeran bizi izateko ametsa, gazteei egiten dieten berariazko deia indarkeria lantzeko eta ez heziketa edo dibertimendu soila, ezker abertzaleko buruek beregain hartu duten erantzukizun sozialik larrienetakoa da.

XABIER LAPITZ
DEIA,2001/06/04

## Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## *Eztabaida*

Lehen mailako futbol taldeen artean, Athletic da Euskal Herriko jokalariekin jokatzen duen bakarra. Gure arteko futbola, ostera, nazioartekotu egin da, eta horrek sekulako zailtasunak sortzen dizkio talde zuri-gorriari. Izan ere, sarri bigarren mailan jokatu izan duten hainbat talde (begiratu Alavesi edo Mallorcari) goi mailan ari dira gaur egun. Oztopoak oztopo, zuzendaritza berriak eutsi egingo dio orain arteko bideari, nahiz eta zaleen artean denetariko iritziak entzuten diren.

# Onartuko zenuke Athletic-ek atzerritarrak fitxatzea?

### *Eragozpenak eragozpen, etxeko jokalariekin segitu*



ELOY MARTIACHE
Athleticeko bazkidea

Athleticek ez du atzerritarrik kontratatu behar. Zalea eta bazkidea naizen aldetik, horren aurka nago erabat. Bakarrik Euskal Herriko jokalariak edukitzea da, hain zuzen, Athleticen ezaugarririk nabarmenetako bat, munduan ezaguna eta gu harro egiten gaituena. Ehun urte iraun duen politika aldatuko balitz eta hasiko balira atzerritarrak ekartzen, segituko nuke Athleticzale izaten, baina muzin egingo nioke bazkide izateari.

Atzerritarrak fitxatzea ez da ezertarako berme. Iaz jaitsi ziren talde guztiak —Atletico de Madrid, Sevilla eta Betis— atzerritarrez josita zeuden. Aurten jaitsiko direnak ere bai. Hortaz, jaitsiera saihesteko txertoa ez dira atzerritarrak. Liga irabazi ere, talde bakar batek egiten du; gainerakoek, nahiz eta atzerritar mordoa eduki, jai dute. Atzerritar barik badakigu askoz ere zailagoa izango ditugula gauzak, baina noizean behin izaten dugu pozik izateko motiborik, orain hiru urte moduan, txapeldunorde geratu ginenean.

Orain arteko politikak baditu bere mugak, hori argi dago. Euskal Herria txikia da eta, beraz, Athleticen merkatua ere halakoxea da. Jakinda, gainera, jokalari euskaldunen beharra dugula, askotan oso garesti ordaindu behar izaten ditugu. Athleticek ez beste, nork ordainduko zituen 2.000 milioi pezeta Roberto Riosengatik? Inork ere ez, bistan da. Realarekin ere arazoak izan ditugu. Araban ez dago harrobi emankorrik. Nafarrekin, ostera, oso ondo joan zaizkigu gauzak orain arte.

Oztopoak oztopo, uste dut Athleticek aurrera segituko duela politika horrekin. Galdetutako bazkideen %85ek argi adierazi dute ez dutela atzerritarrik gura jokalarien artean. Azken hauteskundeetan izan ditugun hautagai biek ere argi adierazi dute gauza bera.

Aro berri honetan urtero-urtero borroka egin beharko dugu Europan sartzeko. Datorren hamarkadan bi-hiru aldiz sartzen bagara, pozik geratuko naiz. Uste dut gai izango garela horretarako.

Athleticzaleoi gauza bat esango dizuet: izan bihotz, ikusiko duzue-eta orain arteko filosofiarekin nola egingo dugun aurrera. Besarkada bat guztioi.

**"Atzerritarrak fitxatzea ez da ezertarako berme. Iaz jaitsi ziren talde guztiak atzerritarrez josita zeuden."**

### *Lehenago edo geroago, bai esan beharko du*



HARITZ GALLASTEGI
Athletic-zalea

Athleticek denboraldi txarra egiten duen bakoitzean berehala ateratzen da mahai gainera atzerritarren gaineko eztabaida. Urte asko ez dela, 1997-1998 denboraldian, Athleticek ligan bigarren egin zuenean inork ez zuen atzerritarren beharrik aldarrikatu. Orduan, Espainiako Ligan goiko postuetan egoteko moduko taldea zegoela esaten zuten. Zale askok, gainera, 24. kopa inoiz baino gertuago zegoela aipatu zuen. Sasoi hartan ez ziren onenak; baina, orain ere, ez dira txarrenak.

Gaur egun, Espainiako Lehen Mailan ongi ibiltzeko taldea badagoela uste dut, betiere taldeko jokalari erabakigarrienek mailarik onena ematen baldin badute.

Baina, nolako Athletic gura dugu? Zeintzuk izan behar dira lehoien helburuak? Galdera hauek eta beste asko egiten dizkiot neure buruari, behin eta berriz. Orain arte, etxeko jokalariekin itxura duina eskaintzea zaila bazen, etorkizunean are eta zailagoa izango da. Bosman Legea onartu zutenetik, atzerritar ugari etorri dira Europako liga indartsuenetara. Bikainak batzuk; beste asko, aldiz, erdipurdikoak. Baina, orokorrean, taldeen kalitateak gora egin du. Hori gutxi balitz, talde gehienak atzerritarren kopurua mugatzearen aurka daude —badirudi Italian nahi adina atzerritarrekin jokatu ahal izango dela datorren denboraldian.

Futbolaren bilakaera ikusita, are eta beltzagoa bihurtzen ari da harrobiko lana ardatz duten taldeen etorkizuna. Gauzak horrela, lehenago edo geroago, atzerritarren beharra izango du Athleticek. Hori bai! Atzerritarrak fitxatuz gero, lehenengo mailakoak izan beharko lirateke. Etxeko jokalariek eman ezin duten jokoa eskaintzeko gai direnak, alegia. Beharrak non dauden ikusi, eta postu horietarako aproposenak diren jokalariak ekarri beharko dituzte agintariek — ez da oso urrun joan beharrik, ganoraz fitxatu ezean zer gerta daitekeen ikusteko—. Atzerritarrak ekartzeak zapuztu egingo lukeela gure herriak futbola ulertzeko duen era? Nik nahiago dut atzerritarrekin irabazi, harrobiko jokalariekin galdu baino...

**"Futbolaren bilakaera ikusita, are eta beltzagoa bihurtzen ari da harrobiko lana ardatz duten taldeen etorkizuna"**

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** — Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

### *Zer irizten diozu lantokietan erretzea debekatzeari?*

## *Gora eta Behera*

**ELKARRIREN BAKE KONFERENTZIA**

Garai latz hauetan norbait, Elkarri, lanean dabil berriro esperantza eta bakea ekartzeko. Herritarren parte hartzea bultzatzen ari da, gainera.

**BERGARAKO ERASOAK JAIETAN**

Zapatu gauean Bergaran gertatutakoak penagarriak izan ziren. Elkarrizketaren eta bakearen alde dagoen gizarte honetan, zapatukoa ez zen izan ezer eraikitzeko, apurtzeko baino.



OIER ETXEBARRIA
Aretxabaletako Murrukixo Mendi Elkarteko kidea

## *Koplak*

### *Zezenak*

Lehendabiziko galdera hauxe
guztioi egin nahi nizun,
herriko festak edo Pazkuak
zer moduz pasa dituzun.

Ezagutzen nazu lehendikan
ni santu bat ez naizela,
neu ere juergan hor ibili naiz
beste batzuek bezela.

Gabaz juergan ibiltzen nintzen
ta goizian zezenera,
hirurogeita hamar urtekin
zezenak toriatzera.

Salamankatik ekarri ziran
festatarako zezenak,
hamar urte ta zortzi erralde
etziran bitxo zuzenak.

Mogimendua bizkorra zuten
oso zorrotzak adarrak,
aitona zaharren ingururako
etziran prenda edarrak.

Eguna juan eta eguna etorri
ibili naiz zezenian,
gustora nago hortikan ere
bizik irten naizenian.

JESUS ALBERDI "EGILEOR"

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA: Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA: Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar
PUBLIZITATEA: Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga
SAILETAKO ARDURADUNAK: Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Iker Barandiaran (Asteko gaia) Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PRODUKZIOA: Iban Arantzabal
HARPIDETZA ETA BANAKETA: Aitziber Langaran
TESTUEN ZUZENKETA: Sergio Azkarate, Gari Bragado

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Bergara.** Koldo Elizalden 97m²ko etxebizitza salgai. 943 76 34 48.

**Arrasate.** Antxo Abarkan 67 m²ko etxebizitza salgai. Egongela, bi logela, bi balkoi, eguzkitsua, berogailua eta erabat jantzita. 943 77 13 44.

**Arrasate.** Ferrerias kalean etxebizitza salgai. 100m², 3 logela, sala, sukaldea, 2 komun eta 25m2ko terraza. Berogailua eta guztiz jantzita. Komunitate gastu txikiak. 656 77 46 60.

**Arrasate.** Obenerrekan 78m²ko etxea salgai. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, balkoia eta ganbara. 943 79 34 58.

**Bergara.** Zubiaurren 82m²ko etxebizitza salgai. 943 76 46 90.

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. 82 m². 943 77 10 18.

**Arrasate.** Erdialdean 97m²ko etxebizitza salgai. Jantzita, hiru logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua, balkoia eta ganbara. 943 79 87 95 / 616 24 08 04.

**Bergara.** Zubiaurren etxebizitza berria salgai. 80 m². hiru gela, bi komun, sukaldea, egongela, sarrera, terraza, berogailua eta igogailua. 630 50 56 16.

**Bergara.** Berritutako teilatupea salgai. 653 73 05 75.

**Jaca.** Etxebizitza berria salgai. 2 logela, garajea eta trastelekua. Igerilekua urbanizazioan. 617 74 99 95.

## 102. EROSI

**Bergara.** 120m² edo gehiagoko etxebizitza erosiko nuke. 636 45 57 18.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Torrevieja (Alacant).** Apartamentua alokagai. 150 m². Bi logela, jangela, egongela… 943 77 03 85.

**Donostia.** Alde zaharrean ganbara alokagai ikasleendako. 943 76 27 96. Deitu 22:00etatik aurrera.

**Salou.** Ekainean, uztaila eta abuztuan apartamentua errentan ematen da. 943 79 88 50 edo 655 74 42 50.

**Cullera** (Valentzia). Apartamentua alokatzeko moduan uztaileko 2. hamabostaldian. Hondartza ondoan. Garajea eta igerilekua. 943 79 93 86.

**Torrevieja.** Apartamentua alokatzeko moduan. 943 79 52 94. Arantza.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza alokagai. Hiru logela, jangela, egongela, sukaldea, bi komun. Berria eta estreinatu bakoa. (21:00etatik aurrera). 943 79 63 49.

**Donostia.** Bi etxebizitza ditugu alokairuan udarako (hilabeteka edo hamabostaldika). Hondartzatik 10 minutura oinez, Egia auzoan. Batak bi logela ditu eta besteak hiru. 617 74 95 09. ELENA edo IÑAKI.

**Torrevieja (Alacant).** Apartamentua alokatzeko moduan hondartzatik oso hurbil. Guztiz jantzita. Hilabete osorako edo hamabostaldirako. 943 78 14 72.

**Bergara.** Matxeategin pisua alokatzen dut. 943 76 37 97.

**Arrasate.** San Andres auzoan etxebibitza alokagai. Hiru logela eta igogailua. 653 74 65 65 asteburuetan edo gauetan deitu.

**Arrasate.** Erdialdean 80 m²ko etxebizitza jantzita alokagai. hiru logela, egongela eta komuna. 656 78 69 49 Maribel.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Etxebizitza hartuko genuke errentan. 653 74 87 51.

**Arrasate.** Hiru ikaslek alokatzeko etxebizitza bila dabiltza. 626 59 70 59.

**Arrasate.** Laugarren mailako hiru ikasle etxebizitza bila dabiltza datorren urterako. Ahal dela, Eskola Politeknikotik gertu. 678 37 21 72.

**Debagoiena.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Beste norbaitekin bizitzeko prest nago. 943 79 31 77. Itxaso.

**Arrasate.** Lau neska ikaslek etxebizitza alokatzea nahi dute. 943 83 16 51.

**Arrasate.** Arrasaten pisua alokatuko genuke 4 ikaslek datorren ikasturterako. 652 76 43 40 / 679 35 14 97.

**Arrasate.** Lau lagunek etxebizitza alokatzea nahi dute. 670 40 19 59. Imanol.

## 105. ETXEA OSATU

**Eskoriatza.** Logela alokagai. Sukaldea erabiltzeko eskubidea. Garbitasuna eginda. 943 71 55 01.

**Aretxabaleta.** Lau logela alokagai, sukaldea erabiltzeko aukera eta garbiketak eginda. 943 79 05 26.

**Arrasate.** Logela bat alokatu nahi nuke. 943 79 54 31.

**Arrasate.** Emakume batek pisukideak aurkitu nahi ditu etxebizitza konpartitzeko. 943 77 17 59.

## 106. DENETARIK

**Harrizko** lursail itxia salgai. 3.500 m². Etxe zahar bat dago hantxe, hura ere harrizkoa. 945 26 33 57.

**Lursail** itxia salgai. Errepide batek mugatzen du alde batetik, eta bestetik erreka batek. 16.230 m². 945 26 33 57.

| 1. ETXEBIZITZAK | 3. LOKALAK | 6. MOTORRA | |
|---|---|---|---|
| 101. SALDU | 301. SALDU | 601. SALDU | 803. EMAN |
| 102. EROSI | 302. EROSI | 602. EROSI | 804. HARTU |
| 103. ERRENTAN EMAN | 303. ERRENTAN EMAN | 603. ALOKATU | 805. TRUKATU |
| 104. ERRENTAN HARTU | 304. ERRENTAN HARTU | 603. KONPONDU | 806. GALDU |
| 105. ETXEAK OSATU | 305. BESTELAKOAK | 604. BESTELAKOAK | 807. AURKITU |
| 106. BESTELAKOAK | | | 808. BESTELAKOAK |
| **2. GARAJEAK** | **4. LANA** | **7. ANIMALIAK** | **9. HARREMANAK** |
| 201. SALDU | 401. ESKAINTZAK | 701. SALDU | 901. AGURRAK |
| 202. EROSI | 402. ESKAERAK | 702. EROSI | 902. HARREMANAK |
| 203. ERRENTAN EMAN | 403. BESTELAKOAK | 703. EMAN | 903. DEIAK |
| 204. ERRENTAN HARTU | | 704. BESTELAKOAK | 904. BESTELAKOAK |
| 205. BESTELAKOAK | **5. IRAKASKUNTZA** | **8. DENETARIK** | **10. RELAX** |
| | 501. ESKAINTZAK | 801. SALDU | |
| | 502. ESKAERAK | 802. EROSI | |
| | 503. BESTELAKOAK | | |

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako deiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**

**Zure iragarkia 60.000 lagunek irakurriko dute!**

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 1.500 PTA (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

# 2/ GARAJEAK

## 201. SALGAI

**Arrasate.** Txindoki dorreko goiko zoruan garajea salgai. 943 79 24 10.

## 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Burdiñetan garajea alokagai. 943 76 43 87.

# 3/ LOKALAK

Apotzagako San Migel MERENDEROA ALOKAGAI
943 71 49 96

BERGARA
SALDU EDO ALOKATU EGITEN DA (ESKUALDATZEA ORDAINDU BARIK) BERRITUTA ETA OSO ONDO DOAN ARRAINDEGIA
943 76 01 56
656 75 48 94

## 301. SALDU

**Arrasate.** Kalealdean lokala salgai. 70 m². 943 79 76 95.

**Bergara.** Arrillaga industrialdean 134m2ko lokala salgai. 670 73 95 36.

**Aretxabaleta.** Loramendi 13an, 275 m²ko lokal ederra salgai. Ur, argi eta gasaren instazioak eginak ditu. Prezio interesgarria. 943 79 18 42, 943 79 66 11 edo 943 79 30 56.

**Arrasate.** Obenerrekan lokala salgai. 34 m². 943 79 34 58.

## 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Gazte talde batek lokala behar du. 943 76 00 90. Susana.

# 4/ LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Geriatria** eta klinika laguntzailea gertu gaixoak eta pertsona zaharrak etxean edo ospitalean zaintzeko. 609 77 01 33.

**Arrasate.** Arratsaldez umeak zaindu edo orduka lan egiteko emakumea gertu. 943 71 53 74.

**Ekain eta abuztuan** lan egiteko gertu dagoen gazte bat naiz. 943 79 93 07.

## 402. ESKAERAK

**Bergara.** Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 33 26. Gauez deitu.

**Bergara.** Emakumea behar da arratsaldez (16:30etik 19:00etara) umeak zaintzeko. 616 59 20 18. Deitu gauez.

**Arrasate.** Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 79 01 84 / 943 79 52 80.

**Arrasate.** Pertsona arduratsua behar da etxeko lanak egin eta neskatila bat zaintzeko. 943 79 94 31.

**Bergara.** Neska bat behar dugu 9:30etik 13:30era umea zaintzeko. 943 76 35 11.

**Bergara.** Etxeko lanak egiteko emakume bat behar dugu goizez. 943 76 02 57.

**Antzuola.** Emakumea behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 78 71 25 / 943 76 61 76.

**Aretxabaleta.** Andre bat behar dugu 10 eta 4 urteko mutikoak zaintzeko. 943 77 06 40.

HERBALIFE
GAINPISUA?
Edan eta arindu!
Dei ezazu gaur bertan 670 26 45 50 telefonora

ARAMAIO
Aramaioko jatetxe baten zerbitzaria behar da
945 44 50 86

BERGARA
Bergarako jatetxe baten emakume bat behar da sukaldean
943 76 59 19

DEIALDIA

ADMINISTRARI LAGUNTZAILE BAT ALDI BATERAKO

KONTRATATZEKO
Leintz Udal Euskaltegia Mankomunitateak administrari laguntzaile bat kontratatu behar du aldi baterako.

ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA
Eskariak, behar bezala beteta, Eskoriatzako edo Aretxabaletako Udaletako Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, 2001eko ekainaren 20a baino lehen (bera barne).

OINARRIAK IKUSGAI DAUDE ESKORIATZAKO ETA ARETXABALETAKO UDALETAKO ERREGISTROETAN
(herritarrentzako ordutegian).

UDAL EUSKALTEGIAK

# 5/ IRAKASKUNTZA

## 501. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Biologia lizentziadunak matematika, kimika eta biologia eskolak emango lituzke. 620 01 13 32.

## 502. ESKAERAK

**Uztailean** eta abuztuan, ekonomia-kontabilitate enpresarialeko irakaslea behar dut. 943 77 17 25. Ilunkeran deitu.

# 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**Kawasaki GPZ 500** motoa salgai. Berrikusi berria eta egoera onean. 943 76 71 21.

**Suzuki Samurai** Hard Top 4x4 autoa salgai. Egoera ona. 658 72 11 52.

**Peugeot 205** Diesel salgai. Oso prezio onean. 657 72 57 63.

**Renault Express** mistoa salgai. SS-AX 4 urte. 943 79 09 31.

**Ford Fiesta** autoa salgai. SS-AU. 57.000 Km. Oso egoera onean. 943 79 44 07.

**Galopper Santano** 2000 monobolumena salgai. 2 urte. 42.000 km. 1.700.000 pta. 943 76 23 01.

## 602. EROSI

**Bultako,** Montesa edo Ossa mendiko motorra erosiko nuke. 656 75 76 98.

# 7/ ANIMALIAK

## 701. SALDU

**Diamate** arrazako txori bikotea salgai, kaiola eta guzti. 2.500 pezeta guztira. 943 76 47 82.

## 703. EMAN

**Txakurkumeak** opari. Ama euskal artzain txakurra da. 943 76 29 67.

# 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**Bizkiendako** kotxe-kapota salgai. Ia berria. 943 76 19 27.

**Gurdi denda.** Gurdi denda salgai. Egoera onean. 160.000 pezeta (beharrezko osagarriak barne). 09:00etatik 14:00etara 943 71 98 11 eta 22:00etatik aurrera: 943 79 51 19.

**Philips CDR** 775 erabili gabeko compac-disc grabagailu bikoitza salgai. Autonomoa da. 49.000 pezeta. 657 70 84 48. Deitu 19:00etatik aurrera.

**Cherny** markako pianoa salgai. 180.000 pezeta. 943 79 14 67 edo 655 70 35 98.

**Gurdi denda.** Gamo modeloko Imar markako gurdi denda salgai. 943 76 42 90.

**Izozkailua.** Zazpi kaxoi dituen izozkailu ia berria salgai. 652 75 55 13.

**Soinekoa.** Jesus del Pozo diseinatzailearen emaztegai-soinekoa salgai. 943 59 44 89 (14:00-16:00 eta 21:00-22:00).

**Kanpadenda** salgai. Mckinley Nepal Plus bi lagunendako. 3,2 kilo. Ia-ia berria. 20.000 pta. 943 79 81 59 / 9948 23 42 38.

## 802. EROSI

**Motxila.** Umea mendira eramateko motxila erosiko nuke. 943 76 51 96. Lourdes.

**Ordenagailua.** Bigarren eskuko ordenagailua erosiko nuke. 943 79 97 96. Deitu 20:00etan.

## 806. GALDU

**Elgeta.** Hilaren 1ean Maribel izena jartzen duen identitate eskumuturra galdu nuen Elgetan ala Urkulun. 943 76 80 54.

**Bergara.** Kartera beltz bat galdu nuen zapatuan. 943 79 07 45.

**Bergara.** Game Boy urdina eta Pokemon jokoa galdu nituen. Boluko frontoian igande arratsaldean. 943 76 56 32.

# 9/ HARREMANAK

CLUB YOLA
Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 22

NIKITA

**NIKITA** Konpainia egiteko andereñoak. Atseginak eta alaiak. **943 46 69 89.**

**NIKITA** Diskrezio osoa, gustu onari dagokion moduan. Erosoa, kopa, bideoa eta ur-ohea. **943 46 69 89.**

**NIKITA** Zu ondo sentiarazteko, edozer egingo duten andereñoak. **943 46 69 89.**

**NIKITA** Strip-tease beroak.

**NIKITA** Hotelera eta etxebizitzara ere joan gaitezke. **VISA 943 46 69 89**

DENAUTO/

DENAUTO

AGUSTIN
Automobilaren karburazio eta elektronika
Airtel
Uribarri etorbidea 16
ARRASATE • 943 79 73 58

Aitzgain OÑATI
SEAT Audi
Tel.: 943 78 17 07 • Faxa: 943 71 80 74

MURILLO GARAJEA
Mekanika orokorra
EUROTALLER
KONFIANTZAZKO TAILERRA
Leizeaga 4 • Bergara • 943 76 13 84

AUTOLEYMA
Peugeot 206-XR 1.4 A/G, I/Z, K/E
Peugeot 406-SR 1.8 A/G, I/Z, K/E
Peugeot 406-SR 2.0 A/G, I/Z, K/E 4 airbag
W. Golf 1.6 A/G, I/Z, K/E
Opel Vectra 1.6 16v 4 ate
Peugeot 306-XRD A/G, I/Z, K/E 2 airbag
A/G: Aire girotua I/Z: Itxidura zentralizatua
K/E: Kristal-igogailu elektrikoa
Aitziturri, 5 • San Lorentzo auzoa
BERGARA
Tel./Faxa: 943 76 09 30

KANPAZAR TAILERRAK
**Alfa Romeo 145 1.6** 1995
SS-AU. Direkzio lagundua.
**Fiat Punto 1.2**
Direkzio lagundua.
**Fiat Tipo 1.6.**
SS-AD
Bizkaia etorbidea, z/g
ARRASATE
Tel.: 943 79 41 98



# Aintzane Lasa

GU BE BAI EUSKARAREN HITZARMENEKO TEKNIKARIA

## "Hitzarmena sinatu duten guztiek borondatez sinatu dute. Hori da bere ekarpenik handiena"

ERAGINA

**"Hitzarmena sinatu dutenen arteko harremanak %90 euskaraz izaten dira"**

ARRASATEKO EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA

**"Lan egiteko tresna bat izango da, Arrasaten euskara berreskuratzeko lanean ari diren erakunde eta taldeen tresna"**

Beasainen jaio zen orain 32 urte, baina azken hamaiketan Arrasaten egin du lan. Beti euskalgintzan. Zazpi urte euskara irakasle moduan Mondragoeko Udal Euskaltegian eta lau Euskararen Aldeko Hitzarmeneko teknikari gisa. Ez du zalantzarik hitzarmen horren garrantziaz.

JOXE ARANZABAL

**Hamaika urte bete dira euskararen aldeko hitzarmena sinatu zenetik Arrasaten. Zer helburu zeukan orduan?**

Lehenengo helburua eta nagusia zen erakundeen arteko harremanak, bai ahozkoak bai idatzizkoak, euskaraz izatea. Sinatzaileen artean euskarazko harreman sarea sortu nahi zen. Beste helburu batzuk ziren sinatzaileak euskara ahalik eta gehien erabiltzen saiatuko zirela esparru guztietan, beren langileak trebatzen joango zirela, etab. Ildo horiek sakonduz joan dira, orain artean egin diren hiru hitzarmenaldietan.

Lehenean (90-93), erakundeen arteko idatzizko harremanen jarraipenari eta haiei hizkuntza aholkularitza eskaintzeari eman zitzaion lehentasuna. Bigarrenean (93-96), erakunde bakoitzaren barne nahiz kanpo harremanetan euskararen erabilera areagotzeko helburua hartu zen. Hirugarren hitzarmenaldian, hitzarmenkideari berari eta haren beharrei aurre egiten laguntzeari eman diogu lehentasuna. 1997tik hona normalizazio plana da hitzarmenaren tresna nagusia. Normalizazio plana erakundearen egoera, beharrak eta ahalmenak aintzat harturik egiten dugu, eurekin lankidetzan.

**Zenbateraino bete dira helburu horiek?**

Hitzarmenkideen arteko euskarazko harreman sarea finkatuta dago, erakundeen arteko idatzizko harremanen jarraipena egiten jarraitzen dugu eta %90 euskaraz izaten dira hitzarmenkideen arteko harremanak.

Bestalde, erakunde batzuek hainbat agiri administratibo (lan kontratuak, kontabilitatea, nominak, TCak eta, oro har, Gizarte Segurantzako agiriak) euskaraz erabiltzea lortu da.

Horrekin batera, urte hauetan dezente landu dugu metodologia eta horrek lagundu digu hasierako helburu orokorrak lortzen. Gaur egun planifikatu egiten ditugu helburuak eta eman beharreko pausoak mailakatu.

**Aurretik ez zegoen horrelako hitzarmenik gure artean. Zein izan da hitzarmenaren ekarpenik handiena?**

Nire ustez, hitzarmen horren ekarpenik handiena borondatean oinarritutako hitzarmena izatea da, hau da, hitzarmen hori sinatzea erabat borondatezkoa izan zen eta da. Beste ekarpen nagusietako bat euskaraz lan egin nahi duten erakundeei horretarako bitartekoak eskaintzea izan da.

**Hitzarmenak berritasun bat ekarri zuen: teknikari bat jarri zuen, hitzarmenaren jarraipena ziurtatzeko. Zu bosgarrena zara, baina denbora gehien egin duena. Zein da zure lana gaur egun?**

Lehenengo eta behin, hasieran sortutako harreman sare horren jarraipena egiten dugu. Bigarrenik, normalizazio planak abiatzea da nire zereginik nagusia. Gaur egun, hitzarmena sinatuta duten 122 erakundeetatik, 53k dute normalizazio plana. Hortik abiatuta, erakundeak berak markatzen du lan erritmoa eta noraino iritsi nahi duen. Hirugarrenik, hitzarmenkide guztiei (normalizazio plana dutenei eta ez dutenei) aholkularitza zerbitzua eskaintzen diegu. Argitasuna ematen diegu zenbait berba eta termino euskaraz nola esan behar diren ez dakitenean, langileen prestakuntzarako informazioa ematen diegu eta lagundu egiten diegu neurrira egindako planak egiten. Aurten, laguntza guztiak biltzen dituen katalogo bat atera dugu.

**Azken urteotan sartu diren erakundeak eta hasierakoak berdinak dira?**

Hasieran sartutako asko euskalgintzan ari ziren: ikastetxeak, AED,Arko, Txatxilipurdi, AEK... Gero sartu direnak, berriz, arlo askotarikoak ditugu: merkatariak, zerbitzu enpresak, enpresa industrialak, eskolak, akademiak, kultura elkarteak, aurrezki kutxak, alderdi politikoak, sindikatuak etab.

**Oraindik erakunde eta enpresa handi batzuk falta dira. Zergatik?**

Hitzarmena ez da gauza itxia eta, alde horretatik, edozein erakundek ditu Gu Be Bai hitzarmeneko ateak zabalik. Hala ere, erakunde eta enpresa handiek egitura konplexuak izaten dituzte gehienetan, eta normalizazio plana abiatzeko gureak baino baliabide handiagoak behar izaten dituzte. Gainera, hainbat enpresa handi (MCC, Fagor, Alecop...) ari dira erabilera plana garatzen udalaren laguntza barik, eta hitzarmenaren barruan egon edo ez, kontua da aurrera egin dutela euskararen normalizazioan.

**Azken aldian hitzarmenean sartu diren erakunde guztiek dute erabilera plana?**

Hirugarren hitzarmenaldian sartutako guztiek, bai. Gaur egun hitzarmenean sartzen direnei hasieratik azaltzen diegu hitzarmenean sartuz gero, erakundearen hizkuntza egoera jasotzeko azterketa bat egingo dugula, eta egoera horretatik abiatuta aurrerapauso batzuk ematea eskatuko zaiela.

**Nola uztartuko da hitzarmen hori Arrasaten laster egingo den plan estrategikoan?**

Egia esan, zehatz-mehatz oraindik ez dakigu nola uztartuko diren hitzarmena eta Arrasateko Euskararen Plan Estrategikoa. Hala ere, plan horretan txertatuta egongo da hitzarmena, hark garatuko dituen ekintza estrategikoetako bat izango da. Gainera, ekarpen metodologikoak ere egingo ditu, ziur aski: hau da, nola lan egin behar den eta zer irizpide erabili behar diren lan egiteko orduan. Gauza bat erakutsi digu hitzarmenak hamaika urteotan: hizkuntza kontuetan, gauzak astiro egin behar direla, presarik gabe. Erdaraz lan egiten ohituta dagoen pertsona bat, denda bat edo enpresa bat ezin dira bat-batean, goizetik gauera, euskaraz lanean hasi. Bide luze samarra behar du.

**Noizko egongo da prest plan estrategikoa?**

Plana egiten hasi eta sei bat hilabetean egongo da prest. Plana, berriz, lau-sei urtean garatuko da. Hortaz, bada, plana prestatzen irail-urrian hasiko garela kontuan izanda, datorren urteko udaberrirako prest egongo da.

**Zertarako plan estrategiko bat?**

Plan estrategikoak lan egiteko tresna bat dira, gestio tresna bat. Izena oso ponposoa da, oso gauza inportantea ematen du, goi mailako enpresa eta erakundeen zerbait moduan ikusten du jende askok. Praktikan, ostera, familia guztiek dute beren plan estrategikoa, inon idatzita egoten ez den arren: familia guztiek jakiten dute zenbat diru zertan gastatu eta gastuak noiz egingo dituzten eta kontrola eraman behar dutela gastuak gehiegi hazi ez daitezen. Arrasateko Euskararen Plan Estrategikoa ere lan egiteko tresna bat izango da, Arrasaten euskara berreskuratzeko lanean ari diren erakunde eta taldeen tresna. Gure lanaren lehentasunak ezarriko ditu, helburu nagusiak. Helburuok lortzeko zer ekintza eta programa jarriko diren martxan jasoko du planak.

**Zergatik da Arrasate hizkuntza kontuetan hain ekimen handikoa?**

Ziur aski beste arlo batzuetan ere ekimen handikoa den arrazoiengatik. Ez da kasualitatea mugimendu kooperatibista Arrasaten sortu eta halako garapen handia lortu izana. Bailara honetan ikaragarrizko gaitasuna dago mota guztietako proiektuak prestatu eta arrakastaz abiatzeko. Arrasateko indar horren arrazoiak aztertzeko ikerketa egiten ari da EHU. Oso ikerketa interesgarria da. Bergara, Andoain, Hernani, Lasarte eta Arrasate alderatuko ditu, batetik bestera zer alde dagoen ikusteko. Laster izango ditugu emaitzak, ikerketa irailean amaituko dute eta.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko ekainaren 8a

# Debagoieneko lehen triatloia bihar Urkulun

## Arrasate Triatloi Taldeak antolatuta arratsaldeko lauretan hasiko da proba

Mota honetako proba bat lehen aldiz antolatu da Debagoienean. Duatloiak lehenago ere egin izan dituzte, hor dago esate baterako Oñatiko duatloia. Baina triatloirik oraindik sekula egiteke zegoen gure bailaran. Biharkoak gainera Euskadiko triatloi denboraldiari hasiera emango dio.

Debagoieneko lehen triatloian parte hartuko dutenek kilometro eta erdi igerian, 40 kilometro bizikletan eta azkenik 10 kilometro korrika egin beharko dituzte. Irteera puntua Goronaeta ondoko txabolan izango da eta triatloilariek lehendabizi Urkuluko urtegian kilometro eta erdi igerian egin beharko dute. Ondoren bizikleta hartu eta 40 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Urkulutik irten eta Arrasatera joango dira, Sarara igo eta berriz ere Arrasatera jaisteko. Ondoren Aramaio, Azkoaga, Zabola, Untzilla eta Aretxabaleta pasa ostean berriz ere Arrasatera itzuliko dira. Lau bide plazan egongo diren boxeetan bizikleta utzi eta azkeneko proba korrika egin beharko dute. Guztira bi itzuli Arrasateko kaleetan barrena antolatutako bost kilometroko zirkuituari. Helmuga Garibai etorlekuan izango da.



Partaideek, lehenbizi, kilometro eta erdi igerian egin beharko dute Urkuluko urtegian. EDU MENDIBIL

Debagoieneko lehen triatloiak Juan Ramon Arana memoriala izena izango du, Almeneko maisu marianistaren omenez. Jose Mari Barrena Arrasate Triatloi Taldeko presidenteak adierazi digunez 100 lagun inguru arituko dira lanean dena behar bezala irten dadin. Triatloia dela eta, zapatuan ezin izango da Urkulura igo 16:00etatik 16:45 arte.

Arrasate Triatloi Taldea 1993an sortu zen eta gaur egun 21 triatletek osatutako taldea du. Horietatik hamabost arituko dira bihar lehian eta Barrena itxaropentsu agertu da bere mutilek egingo duten lanari buruz hitzegiterakoan: "Nik uste dut podiumean sartzeko aukerak ditugula", Arrasateko taldeaz gain Bergarako Antxintxikak eta Oñatiko taldeak ere parte hartuko dute.

Irabazleek sari ederrak izango dituzte. Lehen gizonezko eta emakumezkoak 50.000 pezetako saria jasoko dute eta bigarrenek eta hirugarrenek 30.000 eta 25.000 pezeta hurrenez hurren.

Goiena Telebistak ere ahalegin berezia egingo du eta lantalde handi bat arituko da lanean. Asteleheneko *Goienasport* saioan ikusi ahal izango duzue proban gertatutakoa.

ANARTZ AGIRRE

# Gorlako kotxe igoera jokatuko da zapatuan

## Andres Vilariño eta Aitor Zabaleta faborito nagusiak biharko

Bergara Racing taldeak antolatuta, Gorlako kotxe igoeraren XI. ekitaldia jokatuko da bihar, zapatua, hilak 9, 16:00etatik aurrera. Irteeran 65 kotxe inguru izango dira eta kotxeen ezaugarrien arabera, zortzi maila bereiztuko dituzte. Biharko proba Euskadiko Mendi Txapelketarako puntuagarria izango da. Gorlakoa txapelketako laugarren proba izango da.

Faboritoei dagokienez, Aitor Zabaleta (Lola-Telefonica BMW) bergararra eta Andres Vilariño donostiarra (Osella PA-20) dira bihar garaipena lortzeko aukera gehien dituztenak. Hala ere, oraindik ere Vilariñok ez du baieztatu Gorlan egongo den ala ez. Joan zen urteko ekitaldian Vilariño Bergaran izan zen baina azken momentuan ez zuen parte hartu. Zabaleta, aldiz, aurtengo txapelketan lehenbiziko garaipena lortzen ahaleginduko da. Reinetan bigarren postuan sailkatu zen, Barrerillan ez zuen proba amaitzerik izan eta San Cosmeko proban ez zuen parte hartu. Gidari bergararrak ondo baino hobeto ezagutzen du Gorlako igoera eta azken hiru urtetan bera izan da irabazlea. Ibilbideko errekorra Pantxo Egozkue nafarraren esku dago: 1993ko irailean jokatutako proban 2 minutu eta 21 segundoko denbora markatu zuen Egozkuek.




Biharko Gorlako proban 65 gidari inguruk hartuko du parte. EDU MENDIBIL

Debagoieneko beste hainbat pilotu ere izango dira irteeran bihar: Aitor Ramirez oñatiarra (BMW M3), Iker Bengoa (Citroen AX GT) eta Juan Carlos Fernandez (Citroen AX Sport) atxabaltarrak, eta Javier Bretaña (Citroen Saxo VTS) eta German Hernandez (Renault Clio Williams) bergararrak.

Bihar goizean, parte hartuko duten kotxeen egiaztatzea izango da San Lorentzon, Murillo garajeetan, eta arratsaldean, 4etatik aurrera, entrenamendu saioak eta bi kanporaketa ofizialak izango dira. Gorlarako bidea 14:30ean moztuko dute. Zapatuko lasterketa ikusteko sarrerak 1.000 pezetaren truke salduko dituzte eta sarrera erosten duten ikusleen artean hainbat sari zozketatuko dituzte. Biharko probak lau milioi eta erdi pezetako aurrekontua dauka eta sarietan 1.300.000 pezeta banatuko dituzte. Sari banaketa ekitaldia Jam aretoan egingo dute, 21:30ean.

EDU MENDIBIL

## *Kirolabur*

### DEBAGOIENA/ TXIRRINDULARITZA

Markel Irizar Olarra taldeko txirrindulari oñatiarrak Gipuzkoako erlojupeko txapelketa irabazi zuen eguaztenean Alegian, 23 urtetik azpikoen kategorian. Ibilbidea 38 kilometrokoa zen eta Irizarrek 44 minutu eta 8 segundoko denbora egin zuen. Hirugarren postuan Asier Atxa atxabaltarra (Olarra) sailkatu zen. Eliteko kategorian Ulma Cegasako Asier Maeztu donostiarra nagusitu zen.

### BERGARA/ XAKEA

Zapatuan, hilak 9, Xake azkarreko Euskadiko txapelketa jokatuko da Bergarako Ipintza II institutuan, 17:00etik aurrera. Domekan, berriz, XXX. Bergara Hiria Saria Xake Txapelketa jokatuko da 10:00etan hasita.

### OÑATI/ TRIALSIN

Euskadiko trialsin txapelketako proba puntuagarria jokatuko da domekan, hilak 10, Oñatin, Goiko Benta eta Sindika inguruan, 10:30ean.

# JAIAK Bergara

GEHIGARRI BEREZIA • 2001eko ekainaren 8a

PENTEKOSTEAK 2001





ANDER GILLENEA

- Jende gutxiago izan da, akaso, baina erabat murgildu da jaietan.
- Eguraldia ere alde izan dugu aurten: giro ona eta euririk ez.
- Dultzaina, biolina, gitarra elektrikoa eta soinua: musika gailendu da.
- Larunbat gaueko istiluen dardarak Euskal Herritik harantzago hedatu ziren.

Joan dira aurtengo jaiak. Larunbat gaueko istiluengatik ez balitz (14. orrialdean irakurri), beste urte batzuetakoen antzekoak izan direla esango genuke: hasieran jendea parranda egiteko desiatzen, jai egitaraua ere ganorazkoa eta asteburu luzea aurrean...

Eta, egia esan, aurrez ikusitakoak bete egin dira. Jende ugari ibili da firin-faran, beharbada beste urte batzuetan baino gutxiago, hori bai. Bakoitzak bere gustuko guneak aukeratu ditu.

Izan da isilean igaro den kontu bat: Luis Etxeberria preso ohiari egin dioten ongietorria. Espetxean zazpi urte igaro ostean, berak ere Bergarako jaien gazi-gozoa bizi izan du.

Izan ere, ganberrokeriak ere izan du lekurik gure artean. Arrasto nabarmenak geratu dira San Martin plaza eta goiko plaza lotzen dituen eskaileretan, San Pedro eliza aurrean eta herriko beste zenbait lekutan. Txiza usaina ere izugarri zabaldu da. Badugu zer ikasirik oraindik ere horrelako kontuetan.

Eguraldia ere portatu da. Egun beroak eta epel samarrak, gau freskoak eta euri arrastorik ez. Horrek ere lagundu du. Datorren urtera arte.

# Jaigiro aparta eta giro ona



Jende ugari bildu zen San Martin plazan egubakoitzean, Bitorianatxoren jaltsierarekin jaiak hasteko. GOIENKARIA


Nobilleroak zezen-plazarako bidean, paseilloan. GOIENKARIA


Zezenek ere egin zituzten errekorte batzuk zapatuan. ANDER GILLENEA


Jaietan pilota partiduak ikusi ahal izan ditugu berriz. ANDER GILLENEA


Fin aritu ziren hamabi elkarte bakailaoa prestatzen. GOIENKARIA


Urtero bezala, umeak barraketatik ezin atera. ANDER GILLENEA

ACERALIA
PERFILES BERGARA, S.A.
Tel.: 943 76 19 40
Faxa: 943 76 52 43
Ibarra kalea, 6
BERGARA
AENOR
ER
Empresa Registrada
ER - 262/2/94


Erraldoiek dantzaz bete zituzten kaleak. ANDER GILLENEA


Bideberriko rock kontzertuek jende ugari erakarri dute. Argazkian, Cannonballs taldea. ANDER GILLENEA


Hego Amerikako saltzaileak nagusi. ANDER GILLENEA


Josune Fernandez eta Alex Torrek irabazi zuten txapelketa. GOIENKARIA


Gaztetxoek primeran pasatu zuten kale antzerkiarekin. ANDER GILLENEA


Bazkari hasieran guztiak zintzo, baina gero... GOIENKARIA

# Zer moduz igaro dituzu Bergarako jaiak?



**JESUS ARIZMENDI**
**Erretiratua**

Guk ez dugu askorik sentitu, baina esan digutenez, zarata ugari ibili da bazterretan. Eta gero, zikinkeria, jai guztietako kontua.



**AURORA AGIRREGOMEZKORTA**
**Langilea**

Zapatu gauean bakarrik etorri nintzen, baina ondo pasatu nuen. Gauean pasatutakoa izan ezik, oso ondo.



**MILAGROS JAUREGI**
**Erretiratua**

Askorik ez naiz ibili, baina oso ondo. Zezenak gustatzen zaizkit. Zapatu gauekoa, ostera, ez zait bat ere gustatu. Hori bakoitzak bere etxean egin behar.



**ASIER ARRIETA**
**Langilea**

Ez dira beste urte batzuk bezain mugituak izan, baina ondo egon dira. Elektrotuna gustatu zait bereziki. Zapatuan..., zer gertatu zen zapatuan?



**MARIA ISABEL MOÑUX**
**Langilea**

Nik beharrean jardun behar izan dut, baina jaiak oso ondo egon dira. Giro ona ikusi dut. Zapatukoa ez nuen ikusi, baina...



**ALFONSO ALONSO**
**Udaltzainburua**

Lanean ibili naiz eta nik neuk ezin izan ditut disfrutatu. Hala ere, zapatu gauekoa kenduta, ez da arazo berezirik egon. Jendea, besteetan baino gutxiago.



**GEMA ZENITAGOIA**
**Langilea**

Asteburuan kanpoan izan naiz umeekin. Haurren Egunean, ostera, hemen izan ginen eta oso ondo. Eguraldiak lagundu egin du. Zapatukoak, ez.

Geyser GASTECH S.A.
San Juan auzoa z/g 151 Posta kodea
BERGARA • 943 76 90 04
**PROFESIONALTASUNA, GAS BEROGAILUEN EKOIZPEGINTZAN**
1997ko irailean, Bergaran Geyser Gastech Teknologi eta Ekoizpen Zentrua sortu zen. Gure bezero, lankide eta eskualde honetako jende oro agurtu nahi ditugu.


# Dena ez zen jaia izan...

Domeka goizaldeko ordu bata izango zen. Bergara irakiten zegoen, herriko jaietan murgildurik: adin guztietako jendea zebilen kalean, eguraldi ona eta jai giroa aprobetxatzen. Bat-batean, 50 bat kaputxadun agertu ziren eta Fraiskozuri eta Ibargarai kaleak hartu zituzten, gerrilla urbanoan erabiltzen diren metodoak erabiliz.

Bi taldetan banatu ziren erasotzaileak: batzuk Ertzaintzari bidea ixteko gertu eta besteak jopuntuan zituzten zenbait helburu suntsitzeko. Molotov koktelak, harriak, burdinak, txapliguak eta apurtzeko balio duten tresnak erabili zituzten. Eta gasolina ugari.

Jendeak ez ezagutzeko moduan jantzita, berde koloreko zerrenda bat bularrean besteengandik bereizteko eta militarren gisara mugituz, txikizioa eta beldurra zabaldu zuten inguru hartan.

Erasoak ordu erdi inguru iraun zuen, lekukoak txarrena gerta zitekeen beldur. Azkenean, jende artean nahastu batzuk eta Santa Ana aldera eginez beste batzuk, kaputxadun guztiek ihes egin zuten. Gertatutakoaren ondorioak: 13 beribil, hiru banketxe, postetxea eta optika bat, kaltetuta.

Ikusitakoak ikusita, miraria dirudi ezer larriagorik ez gertatu izana. Aste honetan, denen ahotan ibili da Bergara, beharbada maiatzaren 13ko hauteskundeen ostean gertatu den kale erasorik handiena izan delako.



ANDER GILLENEA

**KE ARTEKO ORDUAK.** Bat-batean, eta inork espero ez zuela, antolaturiko kale indarkeria nagusitu zen Bergarako jaietan. *Goienkaria*-k argazkilari profesionala ekarri zuen jaien gaineko erreportaje bat egiteko. Ander Gillenea istiluen gunean zegoen eta hau bezalako argazkiak atera zituen. Bereak dira lau orrialde hauetan agertzen diren argazki gehienak, hau barne.



Correoseko egoitza ere erasotu zuten kaputxadunek. GOIENKARIA



BCHko kutxazain automatikoa horrela geratu zen. GOIENKARIA

## Bergarako alderdi politikoen erantzuna

**VICTORIANO GALLASTEGI**
**EAJ**

Bergarako Udal gobernuko kideak domekan elkartu ginen, meza hasi aurretik, gaueko istiluak aztertzeko. Lehenengo egin behar dena salatzea da, erabateko salaketa. Orain Ertzaintzaren txostenaren zain gaude, diru galerak zenbatekoak izan diren jakiteko. Horren ondoren batzarra egingo dugu udalean, kale erasoa salatzeko eta herriari zer gertatu den esateko".

**JESUS MARI GARITANO**
**EH**

Zapatu gauekoa herri honetan bizi dugun gatazkaren isla baino ez da. Elkartasuna adierazi nahi diet kaltetu guztiei eta une txarrak pasatu zituzten guztiei. Gaitzespen hutsak, baina, ez du ezertarako balio. Elkarrizketa behar da, eta neurriak hartzea herri hau aurrera ateratzeko. Zoritxarrez, oraingoz berriketa asko eta beste ezer ez gara egiten ari".

**JOSE ANTONIO ETXEBERRIA**
**EA**

Lotsagarria. Ez dakit nork eta noren izenean egin zuten erasoa, baina lotsagarria da. Ikaratuta geratu nintzen hango sua eta txikizioa ikusita. Ez daukat beste berbarik: lotsagarria.

**FRANCISCO JABIER GARAI**
**PSE-EE**

Bergarako jaiak beti izan dira onak. Inoiz izan dira manifestazioak, presoen alde-eta, baina beste barik. Domeka goizekoa, berriz, ezin da onartu. Ez nago bat ere ados basakeria horrekin. Biharamunean jendea haserre zegoen, oso.

**JOSE L. MARTÍNEZ ESPRONCEDA**
**PP**

Zer demontre da hau? Antolatutako ekintza basatia, herri erdia apurtu duena. Egunkarien arabera, "interes espainiarren" kontra ari ziren. Zoratzeko modukoa da. Victorianok "gerra urbanoa" aipatu du eta horixe da. Hala ere, inor ez dute atxilotu. Beharbada merezi dugu daukaguna.

TRATAMIENTOS TERMICOS
T.T.T. S.A.

# Goienka2a

Egubakoitza / 2001eko ekainaren 8a

Kultura eta Aisialdia

Ekainaren 8tik 15etik


# Al Andalus

Bailarari begira lan egiten du eta lanordu dezente eskatzen ditu, Rafa Gomezek esan digun moduan: "Lan ikaragarria da, baina norberak eskertzen du gehien egindako guztia. Jatorri andaluziarra dugunoz gain, inguruetako jendea ere bada gurean lan egiten eta 400 elkartekideetatik, %33 inguruk egunero-egunero egiten dute lanen bat elkarterako. Oso ondo moldatzen gara elkarrekin eta horrela erakutsi gura dugu hau ez dela ghetto bat". Zabalik daude Arrasatera, bailarara, Estatura baita mundura ere.

Lehen batez besteko adina 36 zen, orain aldiz, 44 inguruan dago. Jarraipena ziurtatuta dago, baina lan egin behar da gazteekin eta gazteendako, gazteak zaindu behar ditugu. Gero aldian aldiko batzarrak erabakiko du Al Andalus elkartearen bidea". Oraingoz, hortaz, etorkizuna ziurtatuta dute eta ea beste horrenbeste urtean Euskal Herriko kulturarekin batera bizitzeko pausoak egiten dituzten orain arte moduan. Gurdikada lan dute egiteko eta egindakoa Euskal Herrian bizi garen guztiok eskertuko dugu baita Andaluzia guztiak ere. Horixe da helburua, hangoa hemengoarekin eta hemengoa hangoarekin uztartzea. Al Andalusek lortzen dihardu.

IBAN ARANTZABAL /**16**

# Flamenkotik harantzago



GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko ekainaren 8a

Elkarteak | Arrasateko **Al Andalus** kultura elkartea

# Al Andalus, Andaluzia pixka bat gertuago

## AL ANDALUS ELKARTEAK EHUNDOKO EGOITZA IZATEAZ GAIN BIZI-BIZI EUSTEN DIO ANDALUZIAKO KULTURARI













**Goian, Rocioa ospatu zenekoa; erdialdean, antolatzen dituzten jaietako bi; behean, Rafa Gomez elkarrizketatua eta Al Andalus elkartearen egoitza.**

Hamabi urte dira Al Andalus sortu zutela eta ordutik hona makinatxo bat aldaketa izan dute orain elkartetzat duten etxeak zein elkarteak berak. Etxea diogu, kanpotik pabilioia dirudienak barrutik ez du-eta pabilioi konbentzionalekin zerikusirik. Bi solairuko eraikinean dantzarako gelak, areto nagusia taula eta guzti, batzargelak, taberna, liburutegia, entsegu gela... guztiak, bi kultura eskutik hartuta bizi daitezkeela erakusteko.

Antzerkia, dantza, korala, kantu flamenkoa, rumbak... horri eustea da egin beharrekoa eta ez da gutxi. Horretan dihardu Al Andalus elkarteko presidente Rafa Gomezek: "Nik neuk 35 urte daramatzat lanean Euskal Herrian. 14 urte neuzkanetik dihardut lanean hemengo lantegietan, eta Al Andalus ekimena beti izan dut buruan. Hau, ordea, lantalde da, zorionez gero eta handiagoa.

Gure elkartekideen % 80 Arrasatekoa da, hala ere, beste ehuneko hogeiaren artean bailarako hainbat pertsona daude, esaterako, Aretxabaletakoak, Bergarakoak, Eskoriatzakoak, Elgetakoren bat, Oñatikoak ere bai... Gainerakoak andaluzak dira. Andaluziara bizitzera joan arren, oraindik eutsi egiten diote elkartekide izateari.

### ROCIOA DAUDE PRESTATZEN

Aurten berritasunak izango dira. Rafael Gomezek esan digun moduan, "ez da makala aldaketa. Rocioa urrunetik bizi duenak ez du jakingo eta ez da oharturko aldaketaz. Ama Birjinak "sin pecado" deritzona dauka, eta aurten zutoihal hori estreinatuko dugu. Kordoba aldeko mojek dihardute bordatzen eta ekintza hori guretako oso esanguratsua izaten da. Sinboloa da guretako. Ostantzean, meza, Ama Birjinarekin egindako ibilbidea... eta berba batean, gerturatu gura duen guztiak ondo pasatzeko jaia egingo dugu".

### BATZAR OROKORRAK ERABAKITZEN DU ELKARTEAREN NORABIDEA

"Guk lagun artean eramaten dugu egoitza baita kanpora begira egiten ditugun ekintzak ere. Hamasei batzordekidek dihardugu lanean, baina gure ondoan, gazteek ere lan handia egiten dute".

Gazteen saila ere badago, batzar eta guzti. Independenteki jokatzen dute, euren estatutuak, euren ekintzak, irteerak...

### GAZTEEK ANDALUZIA ALDERA JOTZEN DUTE

Rafael Gomezek esan digun moduan, "Seme-alabak urtean behin gutxienez Euskal Herrian jaiotakoak izanik, oso gutxitan egon izan dira gurasoen jaioterrian, eta ondo dago, betiere, erroak ezagutzea". Huelva, Sevilla, Malaga, Almeria... Gure kultura Euskal Herrikoarekin uztartzea gura izaten dugu. Gazteenendako Euskal Herriko kultura da lehenengo. Guri gertatzen zaigun kontrakoa gertatzen zaie seme-alabei: gu Andaluziako kulturarekin jaio gara eta orain hasi gara Euskal Herrikoa ezagutzen".

### ONDO IKUSIA DAGOEN ELKARTEA

Arrasaten oso ondo ikusia dago elkartea: "Arrasaten oso ondo hartu gaituzte. Gure elkartea desiratzen egoten da gainerakoekin elkarbizitza egiteko, eta gure etxeko ateak beti egongo dira zabalik gerturatzea gura duen edozeinendako. Arrasateko kultura elkarteei ere esan izan diegu noizbait gure egoitzak erabiltzea gura izanez gero esatea besterik ez dutela".

### ANDALUZIA, KANTUA ETA DANTZA BAINO GEHIAGO

Dantza talde ona dugu, baina hori baino gehiago da gure izatea. Andaluziak gizon-emakume ospetsuak eman ditu eta horien artean Andaluziarekin lotura izan dutenak asko dira, Gomezek esan digun moduan: "Irakatsi gura dugu kantua eta dantza baino zerbait gehiago garela, gainerako autonomiak diren moduan. Horixe bera aitzakia hartuta, pasillo batean Andaluziarekin zerikusia duten margolan ugari jarri dugu. Horien artean daude Canovas del Castillo politikari eta idazlea, Platero y yo idatzi zuen Juan Ramon Jimenez, Machado anaiak..." Guk bestelakoak ere ikusi ditugu zintzilik, esaterako, Lola Flores, Carlos Cano, Camaron de la Isla, Rafael Alberti, Antonio gala edo "Jose Maria el Tempranillo" ezaguna, ezkontzeko zela bere emaztegaia kendu ziotena eta hori egin zuena zein zen jakitean hil eta hilketa horren ostean mendian bidelapur bizitza egin zuena. Horrela, 90 izenetik gora.

### EKINTZAK HAMABOSTEAN BEHIN

Gitarra dela, kantaldiak direla, dantzaldiak, kantu flamenkoa... denetik izaten da, baina baita askoz gehiago ere Rafa Gomezek esan digun moduan, "batzuetan galiziarrek ere erakutsi dituzte euren dantzak, Bergarako dantzariek ere jardun dute gurean... Hamabostean behin ekintzak izaten dira areto nagusian, baina egunerokoan ere mugimendu handia eg- ten da Al Andalus elkartean: dantza ikastaroak izaten dira ia egunero, gita- rra irakasle batek ikastaroak ema- ten ditu, barikuetan emakumeek eskulanak egiten jarduten dute...

### ESTATUKO GARRANTZITSUENETARIKOA

Estatuan elkarte ugari dagoela esan digu elkarteko presidenteak: "400 elkarte inguru izango gara, 150 Kata- lunian, gure erkidegoan 11... Hala ere, Andaluziako Juntak erabaki du Madrildik gora dauden Andaluziako etxeen batzar orokorra Arrasaten egi- tea eta ez da txantxetako kontua". Beste elkarte batzuendako eredu dira Arrasatekoak eta urte askoan izan daitezela.

IBAN ARANTZABAL

Kronika | **Guridiren 'Baserria' zartzuela,** Bergarako Udal Pilotalekuan

# Musika ona eta interpretatzaile onak



**Megafonia zela eta, askok ezin izan zuten ulertu testua.**

ENEKO AZKARATE

Lan bat beste hizkuntza batera itzultzea inoiz zilegi izan bada, hori Jesus Guridiren *El Caserío* euskaratzea izan da. Frantzesena maisuak ezin hobeto egin du libretoak (R. Romero eta G. Fernandez Shaw-k egina) baserritar euskaldunari, gaztelera baldar hitz egiten jarrita, egiten dion iraina kenduta; lekuz kanpo zegoen zerbait zen hori gainera, XX. mendearen hasieran, guztiz baserrikoa zen giroan baserritarrek euren jatorrizkō hizkuntzan hitz egiten baitzuten, logikoa den legez.

Ekainaren 1ean Bergarako Pilotalekuan egindako antzezpenerako, hiru paper dramatikoak maila handiko abeslariei eman zizkieten. Juan J. Etxeberria baritonoak *Santirena* serio-serio egin zuen, ahotsko erregistro zabala dauka eta, oso modu seguruan gauzatu zituen nota altuak nabarmendu ziren. Eritzi Zubiri oso kantu-linea ederra daukan tenorra da, zuzen ibili zen une oro *Jose Migel*-ena egiten, batez ere momenturik lirikoenetan. Mariaxen Urkiaren *Ana Mari* ikaragarria izan zen, ahots bizia, abila eta oso ederra daukan abeslaria baita; partitura bikain menderatu zuen, eta bere neurrirako egindako papera egiten ari zela ematen zuen. Egin zituzten duo guztiak nabarmentzeko modukoak izan ziren: tenorra-sopranoa, tenorra-baritonoa, baritonoa-sopranoa... Zartzuelan ohi bezala, badira komikoak diren pertsonaiak, oraingoan *Txomin* eta *Inosensia*-k osatutako bikotea. Lehenarena Jose Antonio Esnaolak egin zuen. *Txomin* beteranoa baina sinesgarria antzeztu zuen eta, batez ere, benetakoa. M. Carmen Esnaolak graziaz antzeztu zuen trebezia agertzeko *Inosensia*-ren papera. Koruko taldeak (Azpeitiko Julian Barrenetxea eta Aretxabaleta Abesbatza) lan polita egin zuen, antzezlanaren atal koralak gogotsu eta bizi abestu zituzten. Talde instrumentalak, Azpeitiko Bandako hamahiru kidek soilik osatuta, ondo egin zion aurre partitura luzeari, eta Frantzesenak egindako musika-konponketa egokiak, sokazko atalaren falta ez igartzea lortu zuen. Amaierarako utzi dut Itsasi Dantza Taldearen agerpena, bere esku-hartzea hunkigarria izan baitzen. Onartzekoa da, bigarren ekitaldiko *Preludioa* Guridik idatzitako orrialderik onenetakoa dela, eta, zalantzarik gabe, euskal musikan ezagunenetako bat. Dantzarien koreografia arin eta biziak une musikal horiek indartu egin zituen, eta euren parte-hartzeak txalo zaparrada eragin zuen. Taularatzea dekoraturik gabe egin zuten eta atrezzoko elementu batzuekin, antzepenerako beharrean kontzerturako ziren baliabideak erabilita; efektu hori, antzezlaneko elkarrizketa guztien laburketarekin areagotu egin zen.

Sentitzen dut antzokietan egindako *Baserria*-ren antzezpenak ikusi ez izatea, euskarazko egokitzapenaren kalitatearen inguruan iritzia eman ahal izateko. Abestutako testuaren pasarte asko ez genuen ulertu, baina hori ez zen izan interpretazio arazoa, baizik eta anplifikazioaren eragozpen teknikoren bat. Gai horri helduta, dagokionari galdetu nahiko nioke ea noiz gozatu ahal izango dugun Bergaran zartzuela batekin, edo opera batekin, behar den moduan: soinu naturalarekin eta mikrofonorik gabe. Pilotalekuan ezinezkoa da, eta, nik neuk, gero eta urrunago ikusten dut hainbestetan aldarrikatutako auditorioa. Ostiralean, pilotalekua betez ikuskizuna berotasunez eta gogotsu hartu zuen publikoak beste antzeztoki bat merezi du.

VALEN MOÑUX

## Nire aukera

### Arkaitz Billar
### Oñatiko Big Lie kolektiboko kidea



El Inquilino Comunista talde getxotarraren lehenengo diskoa gomendatuko nuke. Pop-rock estilokoa da, eta orain arte egin den onenetarikoa, nire ustez. Alde batetik, instrumentuen erabilera bikaina agertzen du, abestiek oso egitura polita dute, eta koruak ezin hobeto landuta daude. Hori gutxi balitz, diskoaren azala bera oso polita iruditzen zait. Talde hori bereziki gustatzen zait. Niretako oso garrantzitsua izan da, eta Euskal Herriko "mobida" alternatiboan ere hala izan da. Zuzeneko itzela dute, nahiz eta ingelesez abestu.

**'EL INQUILINO COMUNISTA'**
**El Inquilino Comunista**



LEIRE KORTABARRIA

## Kaleratu berriak

**Iban Arantzabal**

LIBURUA | *Eleberria*



**ITSASLABARREKO ETXEA**
Miren Agur Meabe
Aizkorri
96 orrialde

Miren Agur Meabe lekeitiarraren liburu honetan 16 urteko neska bakarti eta sentiberak bere lehen amodioa aurkituko du uda batean. Hori ez da izango aurkikuntza bakarra: itsaslabarreko Solaiz Enea etxezaharra, eta honek ekarriko dizkion abentura eta dohakabe guztiek ere ematen diote gorputza eleberriari. Itsaslabarreko etxea agertzen den unetik misterioa eta intriga nabarmenduko dira.

Etorkizun luze eta tentagarriari eutsi ahal eta behar zaiolako esanahia helaraziko digu idazleak.

LIBURUA | *Nobela*




**ERREKARTEKO KOADERNOA**
Xabier Mendiguren Elizegi
Elkarlanean
148 orrialde

Leihotik begira jarri da liburu honetan Xabier Mendiguren eta, hortik abiatuta, hainbat gogoeta, oroitzapen, pasadizo eta irakurketa harilkatu ditu. Liburu guztiz pertsonala osatu du horrela idazleak: batetik, literatur generoen ohiko sailkapenak gainditzen dituen obra delako, eta, bestetik, neurri batean bere pertsona bihurtu duelako berriz ere literatura egiteko gai: bere bizitzako aldi jakin bat kontatzen ez badigu ere, "baserria" eta "aitona" ditu oroigai eta pentsagai, bereak zein nornahirenak.

DISKOA | *Txalaparta*




**OREKA TX**
Quercus Endorphina
Elkarlanean
40 minutu

Soinu etniko entzungarriak egin dituzte Oraka TX taldea osatzen duten Harkaitz Martinez eta Igor Otxoak "Quercus Endorphina" diskoan. Oreka TX-k txalaparta erritmikotik melodikora jo du lehenengo diskoan. Kolaboratzaile ugariz osatutako diskoa da, tartean Justin Vali, Glen Velez, eta Mikel Laboa daude, Kepa Junkeraren gidaritza izan duen diskoan, izan ere, 11 kantatik 9 bereak dira-eta. Txalaparta ardatza, eta gainontzeko tresnek erritmoa laguntzeko baino ez dute balio.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko ekainaren 8a

# Ekaina: 8-15

Edu Mendibil | Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: erredakzioa@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

## Antzerkia

### ELORRIO

> **"Cierra bien la puerta"** antzezlana egubakoitzean, ekainak 8, Arriola aretoan, 22:30ean. Beatriz Carvajal, Elisenda Ribas eta Ainhoa Amestoyrekin.

## Musika

### ARRASATE

> **Zarautz abesbatzaren** emanaldia zapatuan, hilak 9, San Frantzisko elizan, 20:00etan.
> **Utikan** eta **Asgarth** taldeak zapatuan, hilak 9, gaztetxean, 22:30ean.
> **Ikasturte bukaerako kontzertua** eguaztenean, ekainak 13, Arrasate Musikaleko aretoan, 18:30ean.
> **Gitarra eta biolontxelo** kontzertua eguenean, hilak 14, Arrasate Musikaleko aretoan, 19:30ean.

### OÑATI

> **Rock jaialdia** egubakoitzean, ekainaren 8, Gaztelekuan, 20:00etatik goizaldera arte. Joseina Etxeberriaren hitzaldia eta euskal rockaren inguruko argazki erakusketa izango dira eta Fundiziyue eta beste bi talderen kontzertua.

### SORALUZE

> **Kokein** talde eibartarra egubakoitzean, ekainak 8, Gaztelupe tabernan, 22:30ean.

### ELGOIBAR

> **Marea** eta **Flitter** taldeak egubakoitzean, hilak 8, gaztetxean, 22:30ean.

## Erakusketak

### ARRASATE

> **Jon Balentziaga**ren margo erakusketa Aita Menni ospitalean uztailaren 2a arte.
> ***Gay mugimenduaren historia Euskal Herrian. Heziketa da bidea*** izenburuko erakusketa Jai Zale tabernan, ekainaren 17a arte. Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimenduak antolatuta.

### BERGARA

> **Nere Atorrasagastiren** margolanak oliotan Nahikari tabernan, uztailaren 1a arte.

## Lehiaketak

### ARRASATE

> **Argazki lehiaketa** deitu du Arrasateko Udalak. Lanak aurkezteko epea urriaren 11ra arte izango da zabalik. Zuribeltzeko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira. Argibideak udaletxean, 943 79 09 00 telefono zenbakian.
> **Komiki ez sexisten IV. lehiaketa,** Arrasateko Udalak deituta. Lanak aurkezteko epea uztailaren 20an bukatuko da. Testuak euskaraz zein gazteleraz aurkez daitezke. Lehen saria 100.000 pezetakoa da. Beste hainbat sari banatuko dira. Argibide gehiago Emakume sailaren bulegoan jaso daitezke, 943 79 09 00 telefono zenbakian.

### BEASAIN

> **IV. Igartza literatur sorkuntzako beka idazle berrientzat.** Deialdi honetara, narratibazko lanak (eleberri edo ipuin-bildumak) egiteko proiektuak aurkez litezke. Bekak 1.000.000 pezetako diru-laguntza izango du. Proiektuak aurkezteko epea ekainaren 30ean bukatuko da. Argibide gehiago Beasaingo udaleko euskara zerbitzuan, 943 02 80 50 zenbakian.

### GASTEIZ

> **Gazteen Bideo Amateurraren IX. Erakustaldia.** Filmak (hiru kopia VHS sisteman) aurkezteko epea uztailaren 31n bukatuko da. Lan onenentzat sariak egongo dira. Argibideak 945 28 61 42 telefono zenbakian.

### PORTUGALETE

> **Komiki lehiaketa.** Koloreko edo zuribeltzeko lanak aurkeztu ahal izango dira, euskaraz zein gaztelaniaz. Komikia eta komikibanda kategoriak bereiztuko dituzte. Kategoria bakoitzean onenentzat sariak izango dira. Argibideak: 94 472 92 20.
> **Mariano Ciriquiain Gaiztarro ikerketa beka.** Portugaleteko historiaren edozein alderdi landu beharko da: biografia, ondare historiko-artistikoa, eta abar. Banaka edo taldeka aurkeztu ahal izango dira proiektuak, irailaren 13ra arte. Argibideak: 94 472 92 20.

### ZESTOA

> **Zestoa herria ikerketa beka.** Bekaren helburua: Zestoako ahozko tradizioa eta kultura ondareari buruzko ikerlana egitea. Ikerketa lana euskaraz egin beharrekoa da eta lana egiteko epea 12 hilabetekoa izango da. Bekaren zenbateko milioi bat pezetakoa izango da. Argibideak Zestoako Udaleko Euskara Zerbitzuan jaso daitezke, 943 14 70 10 telefono zenbakian.

## Ikastaroak

### ARRASATE

> **Gorputz lan bioenergetiko taldea.** Eguaztenero, 18:30ean. Arrasate Yoga Elkarteak antolatuta. Argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.

### ARETXABALETA

> **Garapen pertsonala taldea.** Hilean bi bilduko dira larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara. Informazioa eta argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.

### ESKORIATZA

> **Energia berriztagarrien ikastaroa** zapatuetan eta domeketan, J.I. Jimenez irakaslearen eskutik. Izena ematea eta argibideak 943 71 54 53 zenbakian.

### DEBA

> **Debako Arte Eskola.** Udako ikastaroak uztailaren 2tik aurrera: kalkografiazko grabatuaren hastapenak, zeramikaren hastapenak, brontze galdaketa artistikoa, marrazketa eta pintura tailerra, marmolezko eskultura edota egurra lantzeko tailerra. Argibideak eta izena ematea 943 19 18 04 zenbakian.

## Deiak

### ARRASATE

> **Junior jaialdia** ekainaren 9an, zapatua, herriko plazan, 17:00etan. Debagoieneko neska-mutikoendako. Jolasak eta dantzak izango dira eta txokolatea eta bizkotxoak banatuko dira. Cim Clubak antolatuta.
> ***AHT gelditu elkarlana*** lelopean kontzentrazioa egingo da astelehenean, hilaren 11n, Eroskiko biribilean, 19:30ean.
> **Manifestazioa.** Lastertasun Handiko Trenaren aurkako manifestazioa egingo da Donostian datorren ekainaren 16an. Manifestazioa 18:00etan irtengo da Anoetako estadiotik. Garibaitik irtengo da autobusa 16:00etan. Izena ematea Biona, Jai Zale edo Irati tabernetan.
> **Liburu aurkezpena.** Toti Martinez de Lezea idazlearen *El señor de la guerra* liburuaren aurkezpena egingo da eguenean, hilak 14, Monterronen, 19:00etan.
> **Haur Dantzarien Eguna** ospatuko da Arrasaten ekainaren 17an. Egun horretan 300 dantzari inguru batuko dira. Haurrak etxera bazkaltzera eramateko eskaera orriak eskuragarri izango dira dantza taldeen egoitzan (Olarte kalean), AEDn edo Hire liburu dendan.

### BERGARA

> **Hitzaldiak:** *Estresa-Lasaiketa* astelehenean, hilak 11. Eguaztenean, hilak 13, autoestimuaren gaineko hitzaldia egingo da. Arrasate Yoga Elkarteak egingo dituen bi hitzaldi horiek kultura etxean izango dira, 18:00etan.
> ***AHT gelditu elkarlana*** lelopean kale bilkura egingo da astelehenean, hilaren 11n, saihesbideko semaforoan, 19:30ean.
> **Euroaren gaineko hitzaldia** martitzenean, hilak 12, kultura etxean, 19:30ean. Udaleko Ongizate Zerbitzuak antolatuta.
> **Ikus-entzunezkoa:** *Pamir ezaguna: Ghujerab mendiak.* Egilea: Koke Lasa. Martitzenean, hilak 14, Zabalotegiko aretoan, 19:00etan. Udal Euskaltegiak antolatuta. Beste emanaldi bat ekainaren 12an izango da, 08:30ean Zabalotegin.
> **Uliazpi Fundazioak** abian jarri du adimen urritasun larria edo handia duten pertsonen familiakoak udan atsedenaldia hartzeko "Respiro" izeneko programa. Zerbitzu hori abuztuan eskainiko da fundazioak Donostian duen etxean. Interesatuek udaleko Ongizate Zerbitzura deitu beharko dute (943 77 91 65) lehenbailehen.
> **Mendi irteera** ekainaren 23an eta 24an Billaresera. Gorla Alpinok eta Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatuta. Txartelak Pol-Poleko bulegoan, 19:00etatik 20:30era.

### ESKORIATZA

> **Mendi ibilaldia.** Txikirri-Txikirri III. mendi ibilaldia datorren ekainaren 10ean. Aurreko urteetan beza-



DANTZA

### HAUR DANTZARI EGUNA ANTZUOLAN

Haur dantzari eguna ospatuko da domekan, ekainaren 10ean, Antzuolan. Oñatiko Olatz taldeak, Arrasateko Lore Gazteak eta Txikitxu dantza taldeak, Bergarako Xamatz, Soraluzeko Urrats dantza taldea, Aretxabaletako Loramendi eta Antzuolako Oinarin taldeak hartuko dute parte. Guztira, 250 bat gaztetxo inguru izango dira Antzuolako kaleak alaitzen, goiz eta arratsaldez. Antzuolako txistularien kalejira izango da goizeko 10etan eta 11:15ean talde guztiek kalejira egingo dute txistularien laguntzaz. Eguerdiko 12:30ean dantza saioa egingo dute herriko plazan eta arratsaldeko saioa, berriz, 17:00etan hasiko da.

## Hitz gezidunak

Luma




## Bila-bila 7









## Umore giroan

Jon Irizar

**BI AIZKOLARI**

Aspaldiko bi lagun aizkolari juntau die:

- Joño, Joxe, zer egitten dok ba?

- Hementxe, motel, aizkoran egittiai ixa lagata, noizian behin erakustaldixetan bakarrik. Eta, hi?

- Ni Saharan ibilli nok!

- Saharan?, baiña han etxak arbolaik eta ezer ez...

- Ez, oin ez!

**BI ARKAKUXO**

Elkartu die bi arkakuxo eta bixetako bat sekulako katarruakin: "atxis, atxis, atxis...". Eta bestiak:

- Zer pasatzen jak ba?

- Lehengo egunian, motozale baten bigotian jarri nitzuan eta sekulakua harrapau juat, kriston hotza, hi!

- Hi be espabilaua bahaiz ba. Hurrenguan sartu hadi neska baten gona motz azpittik eta hankatartian epel-epel egongo haiz.

- Handik aste batera, berriz be elkartu die eta lehengo arkakuxua sekulako eztulakin oinguan be.

- Baiña, motel, ez dostak kasorik egin ala?

Bai, topau najuan neska gaztia, ederra gaiñera, eta sartu nitzuan gonapetik, baina ez jakixat zela, berriro be motozalian bigotian bukatu najuan.

## Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola



### Debagoienaren barruan, zein herritatik zein herritara joaten da jende gehien bizi izatera?

Joan zen urte bukaerako datuen arabera, 5000 lagun inguru Debagoieneko herri batekoak dira sortzez eta orain bailarako beste herri batean bizi dira. Zein herritan bizi da, proportzioan, horretariko jende gehien? (Aramaio kontuan hartu gabe).

- Oñatin
- Elgetan
- Leintz Gatzagan

**Erantzun zuzena:** Leintz Gatzagan (%23,6). Oñatin, %5,5; Elgetan, %8.

### Soluzioak






## Horoskopoa

Berenize

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Legea eta ardurak betetzeak eta ausardiak ez dute zertan kontrakoak izan behar. Pizkundeko zaldun modura jokatuko duzu.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Zeure buruarekin zintzo jokatzeak, eginbehar berrien inguruko zalantzak argitzen lagunduko dizu..

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Hainbat eginbehar edukiko dituzu aukeran. Hautatu itzazu zentzunez benetan nahi dituzunak.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Bidean agertuko zaizkizun oztopoak gainditu beharko dituzu alternatiba berrien bidez.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Nabarmentzeko nola jokatu behar duzun? Izan zu zeu eta kito.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Aldatu zure jokaera nahi dituzun hobekuntzak lortzeko. Kontuz ibili gehiegikeriekin, arazoak ekar diezazkizute eta.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Harmoniaren bila zabiltzala, zu zeu nor zaren topatuko duzu. Ondo ez bazabiltza, ez egin itxurak: hobetzeko egin behar duzuna egin ezazu, besteek diotena diotela.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Kritiken beldur zara eta horregatik isil zabiltza, zure iritzia azaldu barik. Esan pentsatzen duzuna, zure usteek besteenen pareko balioa daukate eta.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Zure jarduera berriz antolatzeak dakarren tentsioak jota utzi zaitu. Bilatu beste modu bat, horrela jarraituz gero gaixotuko zara eta.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Zure asmo eta ideia berriak besteei azaldu beharko dizkiezu. Erabili zure xarma, horri esker kontuan hartuko zaituzte eta hainbeste landutako arrakasta eskuratuko duzu.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Lanean aldatu beharrekoa aldatzeko, lehendik hitzartutakoa beteko duen jendea behar duzu.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Bizi beldur eta larritasunik gabe eta ez pentsatu beti txarrena, bizitzak gauza onak ere badauzka aizu!



Gipuzkoako Astrologi Elkartea

Jaiotakoen argazkiak eta informazioa: **Miren Ibabe**



**Yanire Altube Iturrikastillo** atxabaltarra maiatzaren 27an jaio zen, eta 2,700 kilo pisatu zuen. Gurasoak **Bego** eta **Juanra** dira, atxabaltarrak eurak ere.



**Elena Falcon Gomez** durangarra eta ama **Alicia** mondragoetarra. Elena maiatzaren 27an jaio zen, eta 3,240 kilo pisatu zuen. **Juanjo** da aita, hernaniarra.



**Leire Pineda Cubillo, Marta** eta **Txomin** gurasoekin, bergararrak denak. Maiatzaren 31an jaio zen Leire, eta 3,310 kilo pisatu zuen.



**Odei Pecina Eraña** aramaioarra **Nerea** amarekin, eskoriatzarra. Odei maiatzaren 30ean jaio zen, eta 3,950 kilo pisatu zuen. **Juanjo** da aita, gasteiztarra.



**Paula Rodriguez Velasco** eta **Ines** ama, mondragoetarrabiak. Paula ekainaren 1ean jaio zen, eta 2,560 kilo pisatu zuen. **Angel** da aita, Huelvakoa.

## JAIOTAKOAK

**Aketza Morales Maiztegi**
Aretxabaletan, apirilaren 21ean.

**Nahia Martin Bolinaga**
Eskoriatzan, maiatzaren 11n.

**Ane Gay Saenz-Azkunaga**
Eskoriatzan, maiatzaren 22an.

**Ander Otero Aranburu**
Arrasaten, maiatzaren 24an.

**Mikel Galvez Calero**
Eskoriatzan, maiatzaren 25ean.

**Noha Garagorri Jebali**
Bergaran, maiatzaren 25ean.

**Janire Altube Iturricastillo**
Aretxabaletan, maiatzaren 27an.

**Danel Soto Lopez**
Bergaran, maiatzaren 28an.

**Jorge Da Silva Del Palacio**
Arrasaten, maiatzaren 29an.

**Erika velasco Garcia**
Arrasaten, maiatzaren 31n.

**Leire Pineda Cubillo**
Bergaran, maiatzaren 31n.

**Julen Agirre Lizarralde**
Oñatin, maiatzaren 31n.

**Paula Rodriguez Velasco**
Arrasaten, ekainaren 1ean.

**Irene Lasa Escobales**
Arrasaten, ekainaren 1ean.

**Leire Agirre Leibar**
Arrasaten, ekainaren 2an.

## HILDAKOAK

**Rufina Zugasti Okina**
Bergaran, ekainaren 2an, 93 urte zituela.

**Jose Luis Arrese-Igor Arantzabal**
Bergaran, ekainaren 3an, 73 urte zituela.

**Emilio Bellon Fuentes**
Aramaion, ekainaren 5ean, 63 urte zituela.

**Rosa Bideburu Laeta**
Arrasaten, ekainaren 6an, 85 urte zituela.

## EZKONDUAK

**Mikel Gonzalez Antxia** eta **Dorleta Elkorobarrutia Pagoaga,** Gatzagan, maiatzaren 19an.

**Jose Manuel Calvo Bañez** eta **Izaskun Altuna Idigoras,** ekainaren 2an, Aramaion.

**Ricardo Gomez Garcia** eta **Marta Familiar Gonzalez,** ekainaren 2an, Gatzagan.

**Xabier Goya Goiburu** eta **Irune Urain Zabala,** Arrasaten, ekainaren 2an.

## ESKER ONA



Felisa
Elorza Guridi

**Osintxun** hil zen
2001eko maiatzaren 24n,
72 urte zituela.

Sabino
Urzelai Gantxegi



**Osintxun** hil zen
2001eko martxoaren 16an,
75 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

## II. URTEURRENA

Sebastian
Uribesalgo Bengoa

Bigarren urteurreneko meza
domekan, ekainak 10,
11:00etan,
**Arrasate**ko San Andres auzoko
Asuncion elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## URTEURRENA

Aritz
Zabala Ayastuy

*"Laguna, hitz goxoa,
irudi polita,
oroimen ahaztezina.
Beti zaitugu gurekin*



*Aramaioko lagunak*

## URTEURRENA

Aritz
Zabala Ayastuy

Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainak 10,
12:00etan,
**Aramaio**ko San Martin parrokian.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

# Goiena Telebista

[Pos]ta elektronikoa: goitb@goiena.com

## Telebegi

### Audientzia

Telebistan ere ohikoa da audientziak neurtzea. Batetik, komunikabideek espresuki eskatutako neurketak ditugu, emaitza onak lau haizetara zabaltzeko balio izaten dutenak. Inkesta horiek datu ez hain onak ere aipatuko dituzte, baina horiek etxerako gordetzen dituzte. Bestetik, etxe espezializatuek egindako inkestak izaten dira eta horiei gehiago erreparatzen diet, guztiek antzerako datuak kaleratzen baitituzte.

Sofres AM-k kaleratutako inkesta da jakinarazi diguten azkena, eta joerak errepikatzen direla ondorioztatu dezakegu. Inkesta horrek esaten duenez, Tele 5 da Euskadin gehien ikusten den telebista katea. Gertatu izan zait ondokoari hori jakinarazi eta harritzea. Ez dakit zergatik, baina jendea harri eta lur geratzen da Tele 5 gurean ikusiena dela jakiterakoan. Baina hortxe dago datua: Tele 5 kateak hemen lortzen ditu datu onenak. Ez dezagun ahaztu *Gran Hermano* saioaren ikusle kopuru handiena EAEkoa dela. Hala ere, ETBren gaztelaniazko kateko bi saiok aurre hartzen diote Tele 5 kateari: *Teleberri* eta *Esta es mi gente* hain zuzen. Hau da, Julio Ibarra eta Patricia Gaztañaga pantailan daudenean, ETB-2 da audientzia handiena duena Tele 5 katearen aurretik. Beraz, neurri batean, behintzat, bada lasaitasunerako daturik. Tele 5 kateko albistegia ikusiena izatea, horixe bakarrik faltako litzaiguke!



Maria Agirre

## Astebete

Egubakoitza, 21:05

### Zer gertatzen ari da jaietan?

Herriko jaiek geroago eta arrakasta txikiagoa dute gure bailaran. Jendeak joera geroago eta handiagoa du jaiegun horietan kanpora joateko. Eta herrian gelditzen direnek ez dute ekitaldietan parterik hartzen. Gai honen inguruan jardungo dute hizketan oraingo astean Gorka Etxabe kazetariak eta solaskide izango dituen Eneko Azkaratek eta Mikel Lezamizek. Horrez gain, *Astebete* saioan ohikoak diren tarteak izango ditugu: asteak emandako albisteak laburbiltzen dituen "albiste errota" eta astean kaleratu diren bailarako astekarien errepasoa. Egubakoitzean duzue hitzordua, gaueko bederatziak aldera, Goiena Telebistan.

## Goienasport

Astelehena, 21:05ean

### Triatloia protagonista



Zapatuan, hilak 9, Debagoieneko lehen triatloia jokatuko da. Proba Urkuluko urtegian hasiko da; hantxe parte hartzaileek kilometro eta erdi igerian bete beharko dituzte. Gero, bizikletan berrogei kilometro egingo dituzte eta amaitzeko hamar kilometro lasterka. GOITBk bere asteleheneko *Goienasport* saioan tarte berezia eskainiko dio proba ikusgarri horri eta aurrez aurre izango du Anartz Agirre aurkezleak Jon Aperribai triatleta debagoiendarra.

## GOITB Kiroletan

Eguaztena, 21:05ean

### Bergara Hiria txapelketa

Maiatzaren 8an Bergara Hiria binakako pilota txapelketa hasi zen. Txapelketa horretan Euskal Herriko bikote onenek dihardute. Datorren martitzenean, ekainak 12, lehenengo finalerdia jokatuko da. Promes mailan, aurrez aurre izango ditugu Zabala-Oteiza eta Moran-Gurrutxaga bikoteak. Partida hori 19:30ean hasiko da eta gero senior mailakoen txanda izango da. Maila horretan Mikel-Casado eta Muguruza-Peñagarikano bikoteak izango ditugu. Norgehiagoka ikusgarria, iaz Mikel izan genuen-eta txapeldun, Albizu bikote zuela. Esatari lanetan Anartz Agirre kazetaria eta Xabier Ubera pilotaria izango ditugu.

goitb Goiena Telebista

## Asteko programazioa / Ekaina 8-14

| EGUBAKOITZA 8 | ZAPATUA 9 | DOMEKA 10 | ASTELEHENA 11 | MARTITZENA 12 | EGUAZTENA 13 | EGUENA 14 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Sarrera doan** (errepikapena)<br>20:00/20:30: **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Astebete**<br>21:30 **Soinuz blai** | 13:30 **Saioen errepikapena** *Gatza eta berakatza, Xeleberri, arrera doan, Soinuz blai, Astebete, XXIV. Dantza Txapelketa* | 13:30 **Saioen errepikapena** *Gatza eta berakatza, Xeleberri, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete, XXIV. Dantza Txapelketa* | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Astebete**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Goienasport** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Goienasport**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Xeleberri** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Xeleberri**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Pilota semifinalak: Bergara Hiria txapelketa** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Pilota semifinalak: Bergara Hiria txapelketa**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Sarrera Doan**<br>21:30 **Soinuz blai** |

## Barruko kontuak

### 'XELEBERRI' JAIETAN

Itzeleko arrakasta izan du Bergarako jaien gaineko *Xeleberri* saioak, eta horren adierazgarri dira jasotako deiak. Izan ere, saio horretan Gaztainuzketako mendi etxeetan asteburu bat igarotzeko aukera ematen dizuegu; nahikoa da telefono dei bat zuk ere parte hartu ahal izateko. Jakin Debagoieneko jai guztietan ibiliko direla *Xeleberri* saioko erreportariak. Laster zure txanda izan liteke!

### 'SARRERA DOAN'

*Sarrera Doan* saioak zozketa abiarazi zuen joan den eguenean. Office 2000 programaren gainean dena azaltzen duten liburuak, mundu-ko musikako bilduma zoragarria eta asteburuak lasai-lasai igarotzeko musika klasikoko bilduma bat opariituko ditugu. Ekaineko saio guztietan jasotako deien artean egingo da zozketa hilaren 29an. Animatu eta deitu eguenero 943 71 23 93 telefonora!

## Kamera aurrean



*"Zirkuitu gogorra da, baina ondo ezagutzen dugu eta horren aitzakiarik ez dago"*

**Jon Aperribai** | Triatleta

"BERRIAK" (2001-06-1)



*"Animalien portaera ikusiz, eguraldiaren aldaketak iragar daitezke"*

**Pello Zabala** | Eguraldi aditua

"BERRIAK" (2001-06-6)

# Goienkaria

DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea, 33 • 132 postakutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna, 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@euskalnet.net
**Aretxabaleta** 20550 Durana, 11 • 151 postakutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@euskalnet.net
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com.
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2001eko ekainaren 8a


*Atzeskua*

MAIDER OSA

# Gerardo Puente/Kazetaria

**Donostiar bergarartua? Zergatik?**
Iurreta eta Donostia artean distantzia handia dagoelako. Gastu handia, kilometro asko, denbora luzez autoan ibili beharra... Orduan Iurreta aldera inguratu behar, eta Bergara aukeratu genuen. Hantxe ditugu lagunak eta ezagunak, baita emaztearen familiakoak ere.

**Noiztik ETBn?**
Duela 17 urte sartu nintzen.

**Iurreta eta Bergara arteko joan-etorrietan zure eskuineko zapatak asko pisatzen ei du.**
Garai batean, akaso, bai, baina gaur egun, ez.

**Pantaila atzean aurrean baino gusturago aritzen zara?**
Bai. Aurkezten ari naizenean ez naiz batere eroso sentitzen. Telebistako lana oso polita da, baina mila gauza ditu. Kazetari batek gaiak prestatu, gai baten hariari heldu eta horri forma ere eman diezaioke. Hori askoz politagoa da eta sormen handiagoa du.

**Internet oso gustuko duzue ETBko kirol erredakzioan. Zergatik?**
Interneten milaka gauza topa daitezke. Garai baten telefonoz, faxez, telegramaz, kartaz... lortzen zen informazioa, gaur egun interneten bat-batean lortzen da. Munduko kirol gertakizun garrantzitsu guztiek dute sare artean orria. Askoz ere kronika freskoagoa prestatzea ahalbidetzen du, hobea eta datu gehiagorekin.

**ETBk ez lizkieke beste kirol alternatibo nahiz beste kirolari batzuei ateak zabaldu beharko?**
Ni ETBn "teknikoa" naiz, kakotxen artean. Telebistaren zuzendaritzak hartzen dituen erabakiak plazaratu egin behar ditugu, ahalik eta txukunen. Goi mailako kirol gertakizunendako kontratuak izanez gero, horiei eman beharko zaie lehentasuna, jende guztiari interesatzen zaizkiolako eta telebista kate orotarikook ikusle kopuruagatik ari garelako borrokan.

**Nola amaituko da futbol liga?**
Real Madrilek irabaziko du liga, eta hiru talde jaitsiko dira bigarren mailara. Nik Reala eta Osasuna lehen mailan gelditzea nahiko nuke, eta hortik aurrera, Alavesek ere UEFA jokatzeko matematikoki aukera guztiak galdu ez dituenez...

**Debagoieneko kirol gertakariak segitzen dituzu?**
Gutxi batzuk. Goienkaria eta Berrigara jasotzen ditut, eta egunkarietan ere irakurtzen dut. Hala ere, ahal den neurrian, lanorduetatik kanpo lanarekin zerikusirik ez duten gauzak egitea gustatzen zait.

**Nola bizi izan dituzu Pentekoste jaiak?**
Hainbat egunean, zarata zela eta, oso lo gutxi eginda. Kalera, berriz, gutxi irten naiz.



**"Aurkezten ari naizenean ez naiz batere eroso sentitzen"**

**"Telebistaren zuzendaritzak hartzen dituen erabakiak plazaratu egin behar ditugu"**

**"Ahal den neurrian, lanorduetatik kanpora deskonektatzea gustatzen zait"**

▸ *Donostiarra / 39 urte / ETBko kazetaria*

## AIPAGARRI



**IÑAKI ITURBE**
**Bergara / Diseinatzailea**

Berak egindako lau marrazkiko serie bat aukeratu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutxak antolaturiko Artista Berrien XXXIX. Lehiaketan. Gaur egun, Koldo Mitxelena Kulturunean daude ikusgai, aukeratutako 28 artisten lanekin batera. Iñakik Erti Ederrak ikasi zituen EHUn eta gaur egun *Berrigara* aldizkariko maketatzailea da.



**ANDONI ZUBIZARRETA**
**Aretxabaleta / Kirol arduraduna**

Bilboko Athleticen zuzendaritza berriak kirol zuzendari izendatu du Andoni Zubizarreta. Berak izango du ardura nagusia kirol kontuetan. Deschampsekin batera, bera da nazioartean titulu gehien irabazi dituen euskal futbolaria. Alavesen, Bilboko Athleticen, Barçan eta Valentzian jokatu zuen. Baita Espainiako eta Euskadiko selekzioetan ere.


GOI MAILAKO TEKNOLOGIA
ETA SEGURTASUN OSOA ZURE ESKURA.

*Laguna Expression 1.6 16 V*
2.875.000 pezetatik aurrera




**MECA**
**ARRASATE** • San Andres, 8 • 943 71 24 72
**BERGARA** • Amillaga, 5 • 943 76 40 60

Zatoz probatzera MECA tailerretara Bergaran eta Arrasaten.

* Coches en stock